



uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Aimar Irigoien,
harri-jasotzaile
eta mutil
aparta (3-5)




Hilabetekaria • 2003ko ekaina • V. urtea • 41. zenbakia • www.uztarria.com



...ZUK ZERGATIK EZ?

berria berri



Azpeitian 59.000 euro bildu behar dira egunkari berrirako (24-35)



24 hilabete interesik gabe
Larunbat arratsaldetan zabalik



- erakusketa zabala: 1.450m ko erakustokia
- gremioen koordinazioa
- zure neurriko prezioak

Organo
transplantea,
bizi berri
baterako
aukera (12)

Iñaki Iribar,
enpresari
saridunari
elkarrizketa
(20-21)



Klik.
Udaberriko
Argazki
Rallya
(40-42)



Hi heu!
Joxe Inazio
Aiestaran, er-
lezalea (46)

uztarria

Euskal Herriko indartsu berria da, eta hementxe ondoan bizi da: Errezilen. Bera, Aimar Irigoien harri-jasotzailea da, eta maiz ibiltzen da Azpeitian

NOLAKOA DA ERREZILGO INDARTSUA?



Enekoltz Esnaola / Errezil

Larunbata da eta gaur jai dauka Aimar Irigoienek. Ez eskolarik, ez harri-jasotzeko saiurik. Eta hor dator autoan, goizeko bederatzietan, esandako orduan, Errezileko eliz atarira, autoan, bera txofer, nahiz eta oraindik karnetik ez izan —baserritik herrira jaisteko baino ez du hartzen autoa—. “Eup! Segi atzetik”. Erreziletik gora bizi da, gertu, Irura-Haundi baserrian. “Atzo oilasko-jana edukin Donostian, baina horrelakoetan ere garraiz jaikitzen nauk”, dio Aimarrek. Baietz dio

Aimar Irigoien harri-jasotzailea, baserrian. / ENEKOLTZ ESNAOLA

► haren amak, Maria Jesusek; "ez da geldirik egoteko mutila".

Dagoeneko gizon itxurako mutila. Hama-zazpi urte ditu (martxoaren 5ean egin zituen) eta gizon planta du bere 112 kiloekin. Baina ez horregatik bakarrik, tenplea-eta ere ez baititu mutil kozkor batenak. "Ez da ohikoa gurearena. Edozeinekin hitz egiten du, ez bere koadrilakoekin edo adinekoekin soilik. Soziedaderen baten afaria-edo baldin badu, jende zaharraren ondoan jarriko da, haiekin kontu kontari aritzeko", dio amak. "Gerrako kontuak-eta entzutea gustatzen zaidak".


Aitaren laneko lagunekin eduki zuen atzo afaria. Berak ere laster lankide izan nahi ditu haiek. "Eskola bukatzeko egunak kontatzen ari nauk. Ekainaren 12an bukatuko diat. Nazkatu egiten nauk". Baina orain gogoz ari da; "graduadorekin irten beharko diagu, behintzat. Dena aprobaten ari nauk, tirrik-tarraka. Handik azkar aldegiteko".

Hain zuzen ere, Azpeitian, Iraurgi Ikastetxean dabil Aimar, DBHko laugarren mailan, eta haren amak badaki zer diren astegunetako goizak. "Lau aldiz hotsegin behar izaten diot eskolara joateko jaikitzeke. Aitarekin lanera joaten denean, aldiz, lehenengoan jaikitzen da". Matematika da gehien gustatzen zaion gaia; eta gutxien? "Denak". Ingelesa kostatzen zaio izugarri. "Ulertu ez diat batere egiten eta! Irakasleak hitz egiten ziguk, ingelesez klaro, eta zer esaten ari den arrastorik ez. Baina aprobaten diat, eta aurrera behintzat". Gelan bideoak ikustea ere ez du gustukoa. "Hasi ikusten eta ordu laurdenera lo zapo mahai gainean", dio, keinua eginez.

Uda ondoren igeltsero hasiko da, Joxe Mari aitarekin. "Buruan sartu zaiok eskolan ez duela segituko —esaten du aitak— eta ez dik segituko. Halakoetan berak nahi duena egin behar dik". Azkar erantzun dio semeak: "Gauza denekin egingo dut hori, eh!".

Barre egiten du aitak, barre amak; irribarre Aimarrek. Baserriko sukaldean daude hirurak, umore onean. "Koadrilako gazteena da bera —dio Maria Jesusek— eta denak lanean dabilta, irabazian; berak ere irabazian ibili nahi du, Aimarrek dioen bezala *monigo-tearena* egiten ibiltzerik nahi ez duelako".

Egun gutxi falta zaizkio azken urteetako astegunetako bizimodua bukatzeko. Goizeko zazpiak pasatxo jaikitzen da, Errezilen



autobusa hartu Azpeitira, Iraurgira joan, Betharrametán bazkaldu, asteazkenetan eta ostiraletan izan ezik arratsalde ere klasera, eta gero baserrira, autobusean. Gurasoek normaltzat dute hark lanera hasi nahi izana.

KAFESNEA, GAILETARIK GABE. Harrigarria benetan zera da: halako planta edukita, ez duela gehiegi jaten Aimarrek! "Jaiki eta kafesnea besterik ez diat hartzen, gailetarik gabe. Jolas-denboran, ogiarteko txiki bat. Bazkaldu, beste ikasleek bezala. Meriendatu, etxean, ogiarteko bat. Eta afaldu ere normal". Eta 112 kilo da. Baina ez du ematen. "Karga astuneko familia da gurea", esaten du amak. "Gure aita ere pisu handikoa zen, baina tripa handirik gabekoa".

Aimarrek ez du, beste harri-jasotzaile batzuek bezala, dieta berezirik segitzen. "Ezta segituko ere". Normal jaten du. Baina izaten ditu kapritxoak. Joan den martxoaren 2an 227 kiloko harriarekin errekorra jarri aurretik bezala. "Goizeko sei eta erdietan jaiki zen —dio amak—, mendi buelta txiki bat egin zuen txakurrarekin, eta gosaltzeko arrautza pareta patata frijituekin jartzeko eskatu zidan. Gero, marka egin eta bazkaltzera joan ginenean, Iñaki Perurenak berak Aimarri galdetu zion ea goizean urduri egon al zen, eta gure honek esan zionean zer gosaldut zuen, zeharo harrituta gelditu zen Perurena. Haiek espagetiak-edo jango dituzte; gure Aimarrek orduan arrautza pareta patatekin...".

Gustura sentitu zen orduan mutila, Maria



Iraurgi Ikastetxeko gelan. / NEREA URANGA



Autobusaren zain, herrikoekin. / N. U.



Ikasgelan, bere posterrari so. / N. URANGA



Aimarren aitona.

Amak bere semea defenditu zueneko

• Aimarren ama ere beti joaten da haren saioetara, bestela etxean bakarrik gelditzen delako. Eta semea han edo hemen saioan ari dela, hari buruzko "komentario zelebreak" entzuten ditu Maria Jesusek, "gurasoen kontrakoak; nola daitekeen umea horrela ibili harri-tzarrekin eta abar". Bera ikusleen artean, jendartearen egoten denez, dena entzuten du, eta haiek, jakina, ez dakite bera Aimarren ama denik. Beti "aguantatu" egiten du, baina behin erantzun egin zuen, barru-barrutik atera zitzaizolako. "Ez dakit non zen. Gurasoen kontra etengabe ari ziren batzuk, oso gogor, 'hori baino kirol ederragorik ez da ba egongo'-eta esanez. Orduan bueltatu egin nintzen eta esan nien: 'Semea nahia-godut horrela ikustea, mozko-rraan eta drogekin baino'. Eta esan nien Aimarren ama nintzela. Mutu utzi nituen".

"Zenbat jende dagoen arrastorik ez dakiena!", dio Aimarrek berak, lasai-lasai, imintziorik ere egin gabe kasik. Amak, berriz: "Jendeak ulertu behar du harri-jasotzea hemengo kirola dela, Euskal Herrikoa, eta kirol hau horrelakoa dela".



Gurasoekin, baserrian. / ENEKOITZ ESNAOLA

Jesusek kontatzen duenez. "Ikustekoa zen orduan Aimar. Goizean zehar baserri atarira irteten zuen, irrintzi batzuk botatzen zituen eta horrelaxe". Aise igo zuen 225 jartzen baina 227 kilo dituen harria, bi aldiz gainera; aurrena hogeitasei segundotan, bigarrena hemezortzitan. Inork ez zuen hain gazterik halako harria bizkarreratu (Inaxio Perurenak zeukan marka: 210 kilokoa). Aimarrek, aitona Ramon Jauregiren errekorra haustea ere lortu zuen orduan, 226,5 sekora baitzuen aitona, 1957an egina, 27 urte zituela. Hain justu, aitonari esker hasi zen harri jasotzen.

PARRANDAK. Aimar Irigoien-eta hamasei lagun dira koadrilan: hamalau errezilarrak dira, bat azpeitiarra eta beste bat azkoitiarra. Eta aste bukaeratan Azpeitian ibiltzen dira. "Baina hau hamalau urterako Hernanira, Oialumera joaten zen, eh! Igande arratsaldetan Azpeitiko Udaletxeko arkupetan jartzen zen batzuen zain eta haiekin autoan hara". "Ama, Azpeitian igande arratsaldetan ez dagoelako ezer ere...". Amak dio kontu handiarekin ibiltzen dela Aimar. Eta honek, behera begira: "Ito arte edaten diagu, baina hurrengo egunean erakustaldi bat-edo izaten dugunez...". Eta dio aspaldi ez dela Oialumera joan. Donostia du gogoko orain. Hala, Realak Espainiako Liga irabaztea nahi du, "Donostiara joateagatik, ordea: parte zahar-rraan txakoli batzuk hartu, pintxoak...".

Ikasketak ekainaren 12an bukatuko baditu ere, hemendik gutxira berriro estudiatzen hasi beharko du: kotxeko karneta ateratzeko. "Uste diat dezenteko aspergarria dela, ezta?", galdetzen du, baina amak azkar erantzun dio: "Hik azkar aterako duk. Zerbait interesatzen bazaik, hori azkar ateratzen duk. Ehizakoa azkar atera huen".

Zelatunen ibiltzen da ehizan. Gosaltzera ere joaten da hara, motorrean. "Harri handiak igotzeko ez duk komeni mendian-eta ibiltzea. Niri lasterka eta mendia kendu egin zidatean, giharrak libratu egiten direlako, eta harria kolpean igotzeko ez duk ona hori". Pilota ere kendu zioten, arrazoi horregatik. Kirola, ikusten egoteko gustatzen zaio: boxeo, kotxe eta moto karrerak, pilota, eta "futbol txerri" hori ere ikusten du tarteka.

Euskal Herrian ezagun egin da Aimar Irigoien, harri-jasotzaile onenetakoa baitator,

eta telebista programetan-eta protagonista eduki nahi dute. Baita hegazkina jarri behar badiote ere. "Trantze horretan egondakoa nauk, moteil! Eskolakoekin ikasturte bukarako bidaia genian Kataluniako kostaldera —ez zakiat nora zen, Lloretera edo—, eta bidaia dena ordainduta neukaan; astearte batean abiatu behar genian. Baina abiatu aurretik ETBtik, *Sorginen Laratza*-tik deitu zidatean, ostegunean programara joateko, aurreko batean hitza emanda omen nuelako. Nik, ez nuela programara joaterik, Kataluniara nindoalako eskolakoekin. Haiek lasai egoteko esan zidatean, ez kezkatzeko, hartzeko Bartzelonan ostegunean bertan hegazkina, beraiek ordainduko zutela eta. Azkenean ez nituan batere joan bidaiara, egun bakarra pasatuko nukeelako Katalunian, ostiralean bueltatzekoak ginelako. Ikasturte bukarako bidaiarako ordainduta nian dirua eman zidatean ETBkoek".

Aimarren amak dio Errezilen bertan dituela jarraitzaileak handienak: "Umeek *Superman* balitz bezala hartzen dute. Kalean motorrean edo autoan pasatzen denean umeei bozina joz gero, ikusi egin behar da umeak nola jartzen diren, emozionatuta".

Lasai hartu nahi ditu gauzak mutilak. "Gero eta erantzukizun handiagoa diat, baina ez zaukaat presarik, lasai hartu behar ditiat gauzak, bestela bizi osoa izorra daitekeelako. Azken batean, kapritxo bat duk hau".

Harri-jasotzetik bizitzea zaila dela ikusten dute. Izan ere, erakustaldi bakoitzeko 180 bat euro irabazten ditu, bi laguntzaile ere jotzen dira (osaba bat eta aita), gasolina beraien kontu da, bazkaltzea tokatzen bada ere bai, baita autobidea ere, entrenatzeko harriek bere kostoa dute (Bergaratik ekartzen ditu)... Beraz, igeltsero. Eta bitartean, negu partean astean gehienez ere behin entrenatu, udan erakustaldiak eman, lagunekin ondo pasatu, eta... neskatan? "Hori, zero". Amak ezezkoa dio, "telefono mugikorrean izaten dituelako dei batzuk". Gai horrekin hasi da Aimar sukaldeko eserlekutik pixka bat mugitzen. Baina lasai hartzen ditu broma eta trantze guztiak. Amak hala dio: "Jenioa oso bizia du, baina pazientzia handia. Iraur-giko tutoreek diotenez, eskolan sestraren bat ikusten badu, erdian sartzen da, bakea jartzeko". Indartsua baita errezilarrak hau. ●



Bost urte zituela.



Prentsako erreportaiei begira. / E. ESNAOLA



Baserriko ukuluan. / E. ESNAOLA

amuko zubitik Mikel Arregi

POLITIKAREN IRAULIA

Espainiako estatuak azpeitiarren heren bat boto eskubiderik gabe utzi nahi izan du, azpeitiarren oinarritzko eskubide zibilak ukatuz. Ondorioz, ekainean sortuko den udal gobernu ez da herriaren erreflexua, baldin eta azpeitiarrok ez badugu bestelakorik erabakitzen. Izan ere, Habeak botoak jaso, jaso ditu, nahiz eta *legalak* ez izan, eta nahiz eta zenbaitek boto-paper horiek etxeetara ez iristeko ikaragarritzko ahaleginak egin.

Motzean esanda, azpeitiarrok Espainiako legegari men egiten badiogu, Azpeitiko Udalak ez du herria bere osoan ordezkatzeko. Garbi izan behar dugu aukera bat falta den heinean, beste aukerek lortzen duten ordezkariatza guztiak ez duela legitimitaterik; ordezkariatza horren zati bat Habeari dagokio.

Noiz egin behar zaio demokrazia falta horri aurre? Udala legez kanpo utzitakoan? Euskara galdutakoan? Ez ahaztu Espainiako estatuak martxan jarri duen bideak, besteak bes-

te, euskara, ikastolak, euskal kultura, Uztarría bera zapaltzea duela helburu. Eta azpeitiarrok honi erantzuten hasi beharko ginateke.

Eta zer egin dezakegu? Gure nortasuna defendatzeko biolentzia erabiltzearen ezegokitasunaz asko hitz egin da. Horretarako, ordea, beste bide batzuk landu beharra dago. Eta iritsi da garaia; baina jada hitzak ez dira nahikoak. Azpeitiak oraintxe dauka estatuari aurre egin eta desobedientzia gauzatzeko aukera.

Politikagintza berri baterako garaia iritsi zaigu, desobedientzia zibilean oinarrituko den politikagintza ausartago baterako garaia. Udalean herri osoa ordezkatzuta egon dadin neurriak hartu behar dira; eta horretarako herri mailako beste marko bat sortu behar bada, sortu egin beharko da. Ezin baitugu onartu Espainiako estatuak esatea azpeitiarren ordezkari nor izango den eta nor ez. Ez behintzat euskara, ikastolak, euskal kultura, eta finean gure nortasuna mantentzea nahi badugu.

azketako ude Kepa Susperregi

ETORKIZUNA ELKARTASUNEZ ERAIKIZ

Jose Maria Setienek, gure Elizbarrutiko Gotzain izandakoak, 1998. urteko abenduan, idatzi zuen bere azken Pastoral Idazkia. Garai hartako *su-etenak* sortutako itxaropentan idatzitako idazkiak *Bakegintzan elkarrekin* zuen titulua.

Idazkian bakegintzaren inguruko zenbait gogoeta etiko eskaintzen saiatu zen: bakeak zuzenbidea duela oinarri gogoratzen zuen; baita zuzenbideak pertsonen giza eskubideak errespetatzea suposatzen duela ere.

Gure Euskal Herriko herritarren artean eza-guna dugun aniztasun soziologikoa, politikoa, kulturala gogoan hartzen zuen, "hori aitortzea ezinbesteko eta funtsezko eskakizuna" dugu-ladieraziz.

Egoera horretan, gizabanako bakoitzari eta taldeei aitortzen zaien askatasuna dela-eta, errespetatu beharrezkotzat jotzen zuen; gainera, "aukera desberdina edo kontrakoa egin

dutenei dagokien eskubidea" dela zioen. Gizartea zatitzeak ere kezkatzen zuen: "Gehitxo hitz egin da bi fronteren moldaketaz, bata espainolista eta bestea abertzalea".

Lau urte eta erdi geroago, hauteskunde atari honetan (kanpaina amaitzeaz dela idazten ari naiz) ukaezinezko gatazka bizi dugu. "Mehatxuak ez dira oraindik itzali. Beldurpean bizi direnak ugari dira. Legeen, auzien eta agintarien aldetik herri honen aurkako erasoak sentitzen dituztenak asko dira. Herritarren eskubideak mugaturik ikusten dituztenak ez dira gutxi", zioen duela egun gutxi Juan Mari Uriartek, Elizbarrutiko egungo gotzainak.

Guztientzako onargarri eta baliagarri den irtenbide bat irrikatzen dugu. Beharrezko dugu elkarrizketa. Ez ote gara gai izango, denen giza eskubideak gogoan hartuz eta elkarrenganako begirune izanez, etorkizuna elkartasunean eraikitzeko?

puntie ateaiez

Enekoitz Esnaola

ZER BERRI?

Orain urte batzuk, atentatu baten ostean, egunkari bateko kazetariak, albistean, Euskal Batasuna Iparraldeko alderdiak ekin-tza kritikatu zuela zioen, ñabardura honekin: "EBk frantsesez bidali du prentsa oharra". Kazetariak espainolez idatzi zuen albistea.

Orain aste batzuk, euskal futbol talde batek partida kanpoan zuenean, egunkari bateko kazetaria pozik zegoen, estadioan hango hizkuntzan zeudelako oharra eta idatziak, ez espainolez. Kazetariak espainolez idatzi zuen albistea.

Orain egun batzuk, hautagai gehienak euskaldunak ez zirela salatu zuen EHEK, eta irrati bateko kazetariak horixe nabarmendu zuen. Kazetariak espainolez eman zuen albistea.

Aipatu egunkariak eta irratiak, euskaltzaleak dira. Teorian. Azpeitiarrok ere bai. Teorian. Orain daukagu erronka. Berria berri edo zaharra berri?

bota bertsue

Mikel Berasategi

SANJOANAK

Lizar haundi batekin hasera emanez San Juan suaren epelak jo ohi du indarrez txaranga ta oihuak ta guztiak barrez San Juan txiki eguna ezin ahaztu erre, bikain pasatzen degu musean eginez. (bis)

Buruhaundi, erraldoiak gero kalejira jende asko etortzen da Urrestil erdira denok gozatzen degu jai hauen harira alkatea ere jada esaten ari da: San Inazioak baño hobeagoak dira. (bis)



PEÑAGARIKANO. Azpeitiak ere izango du pilotari bat lehenengo mailan: Kepa Peñagari-kano. Bigarren mailako eskuz banakako pilota txapelketan erraz gailendu eta datorren urtean lehen mailan jokatu du.



ITURRI TXIKI. Iturritxi-ki inguruan jartzen diren eskulturek ez dute zorte handirik. Orain iturrikomutillaren eskultura bururik gabe dago. Kale horretako eskulturak ez dira asko errespetatzen. Ez horixe!



EPAITEGIA. Epaitegia lekuz aldatzeko, koartel zaharreko eraikina Eusko Jaurlaritzari eman dio Azpeitiko Udalak. Gaur egun hainbat talde daude bertan, eta, beraz, nora joango lirateke?

gutunak

Kaixo Uztarriari Fresneseko espetxetik:

Fresnes, 2003ko apirilak 25

Gutun honen bidez nire eskerak eman nahi dizkizuet, Uztarria aldizkaria jasotzen hasi baina eta esan, poz handia hartzen dudala irakurtzen dudanean. Frantziako puntu honetan espetxeratuta egoteagatik, oso mugatuta daukat Azpeitiko hainbat gauzaren inguruko berririk jasotzea: lagunaren gutunen eta une honetan senideen bisiten bidez daukat Azpeitiko berri. Uztarriari hainbat kontu, gertakari, eztabaida... dakarzki, eta azken finean, herria nola dagoen ikusteko aukera ematen digu. Inkomunikazio honekin apurtzeko gaitasuna dauka eta benetan, Azpeitiarekin lotura edukitzeko tresna baliogarria da.

Denbora luzez herriko hainbat jende ezingo dudanez ikusi eta herrira ezingo dudanez joan, zuen lanaren ondorioz hau dena posible egiten duzue, eta ez

dakizue nolako poza hartzen dudan/dugun eskuetara Uztarria ailegatutakoan. Azpeitira bidaia bat egitea bezala egiten zait, eta sinestu ezazue lehenengo hizkitik bukaerako hizkiraino irakurtzen dudala. Eta argazkiei begira denborak ematen ditudala, askotan farrez: lagunak, ezagunak... Azpeitian nola denok ezagutzen garen... Denak ezagunak egiten baitzaizkit, eta oroitzapen piloa burura ekartzeko aukera ematen dit. Beno, hartu ezazue besarkada bero bat Fresneseko ziegako txoko honetatik, eta ondo segi.

Xabier Etxeberria Txapi

Elkartasun Egunaren balorazioa

Ezer baino lehen, eskerrak eman nahi genizkizue aurtengo Elkartasun Eguna antolatzen lagundu diguzuen talde edota herritar guztioi.

Eguna pasa ondoren, eta oraindik ere zenbait datu zehatz ez ditugun arren, egiten dugun balorazioa oso positiboa da: krossean ia 200 lagunek hartu zuten parte, talo postuko txanda guztiak herriko talde edo koadrila ezberdinen laguntzaz betetzea lortu genuen, herri bazkarian 350 herritar izan ginen, gaztetxoaren gunean antolaketa eta giro polita egon zen, manifestazioa Azpeitian aspaldian egin den jendetsuena izan zen, kontzertuan plaza bete-bete eginda ikusi zitekeen...; eta urteko urtera egun honen inguruan antolaketarako eta parte hartzeko biltzen den jende kopurua gehitzen doa nabarmen.

Beraz, baditugu baikor egoteko eta aurrera begira lanean bide onetik ari garela pentsatzeko arrazoiak. Euskal presoaren egoera oso larria den honetan, herritarrok batu eta honelako ekintzak aurrera ateratzeko gai garela ikusirik, aurrerantzean ere indarrak pilotzen jarraitu, eta guztion konpromisoz egoera honi amaiera ematea da helburu nagusia.

Beraz, maiatzaren 10ean egin

genuen era berean, jarrai dezagun lanean aurrerantzean ere, eguneroko lanak eta gure arteko indar metaketan ondorioz, lortuko dugulako behingoz eta betirako Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzeko.

Elkartasun Eguneko antolatzaileak

La Guipuzcoana autobusei

La Guipuzcoana SL autobus enpresa egunero erabiltzen dugu. Eta hainbat kexu azaldu nahi ditugu: erabiltzaileok eserleku baten truk ordaintzen dugu eta ez pasillo, eskailera edo lurrean joateko. Ordaintzen dugunarekin gosaria eta dena eman beharko ligukete.

Zerbitzu hobea eskatzen dugu. Azkoititik Donostiara autobusean eserita joatea zerbitzu minimoa da eta horretarako autobus bat gehiago jarri behar badute, jar dezatela.

Irantzu Artetxe

akulue



Leire Ostolaza

AITONENA
BAKARRIK?

Adineko jendearen aisialdi guneak garrantzitsuak dira gauregun, eta garrantzitsuagoak izango omen dira etorkizunean. Azpeitian badugu Aitonena izeneko taberna bat, eta Sanjuandegi auzoan ere bagenuen beste bat aitona-amonon gozamererako. Orain dela aste batzuk zabaldu berri da Sanjuandegiko Aitonena berria, eta izen honekin zabaldu ere. Aitonentzat bakarrik ote dira herri honetako adinekoen aisialdirako guneak? Ez al dituzte bada amonek ere merezi gune horiek? Badakit txorakeria bat izan daitekela hau beste mila arazo larrien aurrean, baina lehenengoan hortaz konturatuta, asko kostako al zen berdintasunez jokatuz behin eta berriro emakumeak ez baztertzea? 2003 urtean inor ba al da tabernak gizonentzat soilik direla dionik? Ez dut usate, eta ez nuke pentsatu nahi intentzio txarrez egindakoa denik, inertziaraz edo ohituraz, pentsatu gabe eginiko zerbait baikik.

Etorkizuneko aitona-amonak izango gara gu, eta nahiko genuke ordurako zenbait ohitura baztertzaileraz uztea, gazteok ohituak baikaude emakumeak taberna, kiroldegia eta beste aisialdi guneetan lasaitasun osoz ikusten. Egunero ikusten dira amonak Aitonenan, baina gauza txikiak aldatuz egiten dira iraultza handiak.

galdeiez

Zer iruditzen zaizu
jubilatuen etxe berria?
Beharrezkoa al da?

Tere Manzidor

(etxeke andrea)



“Oraindik ez dut bertara joateko aukerarik izan. Sanjuandegin berri bat beharrezkoa zela iruditzen

zait. Gainera, beste lokalean ludo-terka egin behar dute eta horrela zaharrentzako zein gazteentzako lekua egongo da”.

Pili Aramendi

(dendaria)

“Oraindik ez dut ongi ikustearik izan, joan naizenetan be-

uztarria.com-eko eztabaidie

GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren web gunean udal hauteskundeetako emaitzen inguruan inguruan sesioan dabilta. Hona hemen gutun horietako sorta bat:

Analisi bat eginez

Nik analisi txiki bat egingo dut, boteprontoan, eztabaida pizte aldera. Niri okurritzen zaizkidanak, di-da:

- Irabazle nagusia alkate berria, Eizmendi izan da. Aurreko hauteskundeetan Bastidak inoizko emaitzarik onena lortu zuen; bada, honek, hura gaintu du, dezentez. Gainera, Foru Aldundirako jasotako botoak baino gehiago jaso ditu EAJ-EAk munizipaletan, Eizmendiren tiradizoaren seinale. Erronka honakoa du: eutsiko ote di-on konfiantza horri? Udal politika egiteko beste modu bat nahi dute EAJ eta EAKo botoemaileek, eta Eizmendik irudi horixe eman duela iritzi dio jendeak. Gainerako alderdi guztiak, koalizio honetatik oso urruti gelditzen dira Azpeitian. Une hauetan, EAJ-EAk ez dauka boterea galtzeko arriskurik.

- Habeak emaitza onak lortu ditu parte hartu du-en bezala parte hartuta. Foru Aldundirako AuBk lortutakoak baino boto gehiago, Odriozolaren taldeak jendearen konfidantza irabazi duen seinale. Azpeitian ezker abertzalea kontuan hartu beharreko indarra da, ez bairik gabe. Bigarren indarra. Hala ere, aurreko udal hauteskundeetatik boto asko jaitsi da, ia herena. Jaurlaritzako emaitzekin alderatuz, zerbait igo da, baina, Jaurlaritzakoak, emaitza txarrak izan ziren EHrentzat. Gertatzen dena da, ezin dela jakin zenbateko eragina izan duen legez kanporatzeak, eta zenbatekoa beste zerbaitek.

- PSE-EE eta PP alderdiek indar gutxiago era-

kusten dute udal hauteskundeetan, bestelakoetan baino. Udalerrri mailan gutxi *ikusten* diren seinale. Justu iritsi dira minimoa den %5era, eta hori, boto legalak soilik kontuan hartuz gero; bestela, ezta minimo horretara ere. PSEk, hala ere, asko igo du aurreko hauteskundeetako boto kopurua, eta Urangak Foru Aldundiko botu kopuruarieutsi dio.

- EB-IUK goranzko joerari eusten dio, Azpeitian, inguruan bezalaxe. Baina oraindik oso alderdi minoritarioa da gurean.

- Aralarrekoak ez ziren udal hauteskundeetara kandidaturarik aurkezteko gai izan, baina Foru Aldundiko hauteskundeetan 300 boto lortu dituzte. Ezker abertzalearen ehuneko hamabost inguru. Ez da asko; ez da gutxi. Segun nondik begiratzen den.

Laburbilduz: ia denak pozik. EAJ-EA, irabazi egin dutelako. Habeak, eutsi egin diolako erronkari. PSE eta PP, lehen aldiz zinegotziak dituztelako... Denak pozik! Holako kirolrik!

Analista

Habea irabazle

Ni ere, Analistak bezala, nire analisi propioa egiteko asmoz nator. Hauteskunde hauetako irabazle nagusia Habea izan da Azpeitian, oztopoak oztopo bi mila boto baino gehiago lortu ditu eta hor ez daude egon behar luketen guztiak: batetik Ertzaintza botoak lapurtzen ibili da Gi-

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

1. GALDERA: Hauteskundeetatik sortuko den Udala guztiz demokratikoa izango al da?

- Bai: %28
- Ez: %72

Joxe Luis Gabilondo

(jubilatua)

“Oso ondo dago. Gainera, ondo ematen omen dute jaten. Lehengoa txikia zen, jende asko egoten baitzen; orain toki gehiago dago. Gainera, lehengo lokalean ludoteka egin behar dute”.

Angel Ainziburu

(langilea)



“Oraindik ez dut ikusi, baina oso ondo dago horrelako lokal bat izatea. Sanjuandegi herriko

beste zati garrantzitsu bat da, bertan bizi den jende kopuaragatik. Eta herriko alde horretan horrelako beste lokal bat egotea garrantzitsua dela iruditzen zait”.

Itsaso Andres

(tabernaria)



“Ondo iruditzen zait, horrela Sanjuandegikoek ez dute kaleraino etorri beharrik. Baina

horren aurretik beste gauza batzuk egitea ongi egongo litzateke: kultur etxea edo 17 urtetik gorakoentzako lokal egoki bat, adibidez”.

teta topatu baitut. Bestea txiekiegia gelditu da eta horregatik egin dute berria. Herrian adinekoentzako horrelako bi lokal egotea ongi iruditzen zait”.

Izaskun Goenaga

(langilea)



“Ongi dagoela entzun dut, baina oraindik ez dut ikusi Aitonena II berria. Horrelako lokal

handi bat egiterakoan jubilatuen kopurua kontuan hartuko zutela pentsatzen dut. Lehengoa txikia gelditu zelako egingo zuten”.

“Irabazle nagusia alkate berria, Eizmendi izan da”

Analista

“Habeari orain udalbatzarretara joateko eskubideaz baliatzea geratzen zaio”

EHK

“Betiko moduan mahaiaren inguruan jarri beharko dira eta gaiak eztabaidatu beharko dute”

Pilota teilatuan



puzkoan han eta hemen, eta bestetik, Eizmendi eta Bastida Habearen ateak itxi nahian ibili dira hainbat boto eragotziz. Habeari orain udalbatzarretara joateko eskubideaz baliatzea geratzen zaio, guk aukeratuak izan baitira, eta hor egon behar dute politika egiten erakusteko.

EHK

Ez da desgrazia

Desgrazia al da PSE-EEk eta PPK zinegotzi baina lortzea Azpeitian? Ez al litzateke desgrazia handiagoa EAJ-EAk zinegotzi denak eskura-

tzea? Egoera ez da normala, egoera oso larria da, ez ahaztu bi mila azpeitiarretik gorak (eta atzetik datozen hainbat eta hainbat gaztek) ez dutela ordezkariak izango Udalean datozen urteetan. EAJ-EAk hamazazpi zinegotziak lortu izan balitu, normaltasun egoera irudikatu nahiko lukete. Orain, sikiera, Udaleko plenoek itxura *anormala* izango dute: espainolen ordezkariak, bizkarzainak...

Desgraziz?

Eztabaidatu egin behar

Pilota EAJ-EAren teilatuan dago une honetan, Azpeitian. Habeak lau zinegotzi atera ditu (ia bost), bi mila herritarretik gorak babesa eman diote, eta orain EAJ-EAk ikusi beharko dute nola ordezkatu daitezkeen bi mila horiek Udalean. Eta ez dago besterik. Gero, behin hori ziurtatutakoan, betiko moduan mahaiaren inguruan jarri beharko dira denak, gaiaren inguruan eztabaidatu eta abar. Baina horretarako aukerarik emango al zaie bi mila azpeitiar horien ordezkariak?

Pilota teilatuan

Abstentzio zalea

Abstentzio zalea naiz, eta oraingoan ere hala egin dut. Baina bien arten elkarrizketa egon beharko luke, eta ikusi bakoitzak zer eskaintzen duen. Ez du balio besteari eskatzea norbera gauza ez dena emateko.

28.ri

zer diyo?

DANTZA ESKOLAREN HOGEI URTEKO IBILBIDE GAZI-GOZOA

Hogei urte euskal dantzak irakasten eta hogei urte Azpeitiaren izena Euskal Herrian barrena zabaltzen. Luis Alberdi azpeitiarrak azken bi hamarkadetan euskal kulturaren alde egindakoa ez da nolana hiko. Ibilbide luzea, polita, baina neketsua: haurrek eta dantzek berekin dakarten pozari, erakundeen babesik ezaren gazitasuna gehitu behar zaio.

Betidanik izan ditu gogoko Luis Alberdik euskal dantzak, eta gazte gaztetatik dantzaren munduan murgilduta bizi da. Bera izan zen Euskal Herriko Dantza Solteko herriz herriko txapelketetan parte hartu zuen lehen azpeitiarra. Garai haietan ez zegoen haurrak fandango eta arin-arin txapelketetarako prestatzen zituen dantza eskolarik Azpeitian, eta, horregatik, eskola bat abian jarri zuen.

Hiruzpalau ikaslerekin hasi eta, hogei urteren buruan, 1.300 ikasle baino gehiago pasa dira dantza eskola horretatik; 4 urtetik 16 urtera bitartekoak gehienbat, baina helduek ere izan dute lekua. Lehendabiziko urteetan fandangoa eta arin-arina irakasten hasi zen, baina berehala zabaldu zuen esparrua, eta Euskal Herri osoko dantzak irakasten ditu garur egun. Dantza solteko txapelketak dira, hala ere, bere lehentasunetako bat, eta, egun, Euskal Herri mailako lehiaketatan parte-hartzeko handiena Azpeitiko dantzariena da; maila oneko dantzariak, eta txapelketatan puntapuntan dabilzanak.

Gainerakoan, urtean zehar hainbat emanaldi eskaintzen dituzte eskola honetako gazteek. Nagusia, Sanjuandegiko jaietan: hemen,

“ Luis Alberdi izan zen Euskal Herriko Dantza Solteko herriz herriko txapelketetan parte hartu zuen lehen azpeitiarra ”

“ Euskal Herri mailako lehiaketatan parte-hartzeko handiena Azpeitiko dantzariena da ”

“ Gezurra badirudi ere, Luis Alberdik ez du apenas laguntzarik izan ibilbide honetan gutzian ”

Iparraldeko eta Hegoaldeko folklorea plazaratzen dute ehunka lagun aurrean.

Dudarik gabe, lana erruz egin behar da aipatu txapelketa, jaialdi eta bestelako emanaldiak ondo prestatu eta kaleratzeko. Hogei urteko lana dago horren denaren atzean. Lana eta borroka. Kalitatezko ikuskizunak plazaratzeko materiala, jantziak eta beste hainbat azpiegitura ezinbestekoak baitira. Azken batean, laguntza ekonomikoa funtsezkoa da horrelako eskola bat aurrera eramateko. Baina, gezurra badirudi ere, Luis Alberdik ez du apenas laguntzarik izan ibilbide honetan gutzian. Lehen hamazortzi urteetan udalak ez dio sosik eman, eta duela bi urtetik hona diru laguntza txiki bat jasotzen ari da. Lokalaren errenta ere bere poltsikotik ordaintzen du.

Diru laguntzarik ez, inguruko herrietako dantza taldeek utzitako material eta jantziei esker eskaini dituzte orain arteko emanaldiak.

Hogei urtetako ibilbidea, beraz, ez da batere samurra izan. Etenik gabe, borrokan, diru laguntza eske... eta tamalez, udalaren erantzuna ez da tamaina horretako dantza eskola batek merezi duena izan. Baina, Luis Alberdik aurrera jarraitu du beti, eta indarra haurren ilusioak ematen dio. Hutsetik hasi eta dantza eskola sendo bat eraiki du. Duela bi hamarkada landatutako haziak fruitu oparoak eman ditu eta emango ditu. Dantza eskolak zutik iraungo du-eta.

Dantza eskolako batzuk



**AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI**

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)



- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

AZKOITIAN ALTAMIRA AUZOAN ETA AZPEITIAN PERDILLEGIN:

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Merkataritza
 - Arotzerien eta altzarien fabrikazio industrialia
 - Mekanika
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Administrazio eta finantzak
 - Zur eta altzari produktzioa
 - Mekanizazio bidezko produktzioa
 - Informatika sistemen administrazioa
- **Batxilergoak**

**AURREMATRIKULA
EPEALDI ARRUNTA**
Erdi eta Goi Mailako H. Zikloak
Ekainaren 2tik 11ra (biak barne)

MATRIKULAZIOA
Ekainaren 30etik uztailaren 4ra
(biak barne)

EPEALDI BEREZIA
Goi Mailako Heziketa Zikloak
Uztailaren 24tik 28ra (biak barne)

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g. Perdilegi, 3
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa) 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 Fax.: 943 85 28 67 Tel.: 943 15 37 70 Fax.: 943 81 6 6 20
E-mail: azkoitia@urola.org E-mail: azpeitia@urola.org

www.urola.org

jaten duguna gara ■ ■ somos lo que comemos

**Nahi duzu
kontsumitzaile eta
ekoizle ekologikoekin
sortu behar dugun
kooperatibako
kide izatea?**

**Urola-Kosta
eskualdean kontsumo
ekologikoaren aldeko
apustua egin dugu**

**En la comarca
de Urola-Kosta
apostamos por un
consumo ecológico**

**¿Quieres participar
en la cooperativa
de consumidores
y productores que
vamos a crear?**



943 151713 (Josune Orbegozo) iorbegozo.ingurugiroetxeafundazioa@azpeitia.net



*Ingurugiro Etxea
Fundazioa*



AIZARNAZABALGO UDALA



Azkoitiko Udala



Azpeitiko Udala



BEIZAMAKO UDALA



ERREZILGO UDALA



Zumalako Udala

BIZI BERRI BAT AUKERAN

Marcos Gorostiagak eta Joxe Mari Iburgurenek organu transplantea izan dute, eta orain beste gaixoei laguntzeko lanean ari dira



Marcos Gorostiaga eta Joxe Mari Iburguren 'Magua', Euskadiko Gaixo eta Bihotz eta Birika Transplantatueh Elkarteko kideak. / NEREA URANGA

Nerea Uranga

Bizitzeko gogoak, neurri handi batean, bizi berri baterako bidea ireki die Marcos Gorostiagari eta Joxe Mari Iburguren *Magua*-ri. Izan ere, bi mutil gazteri esker bizitzarekin aurrera jarraitzeko aukera izan dute biek. Gorostiagak gazte baten birika du transplantatuta eta Iburgurenek beste gazte baten bihotza. Biei Santanderren (Espainia) egin zieten transplantea, eta oraindik ere sarritan joan behar izaten dute hango ospitalera, medikuek jarraipena egiteko.

Bost urte besterik ez dira Espainian biriken transplantea egiten hasi zirela. Euskal Herrian zortzi-hamar lagun besterik ez dira birika transplantatuta dutenak. Bihotzarena 1980ko hamarkadatik egiten da, eta Euskal Herrian 150 transplantatu inguru daude.

Gorostiagak hamar urte egin zituen biriketako gaixotasunarekin, egunegun amasa hartzeko gero eta zailtasun handiagoak zituelako. "Bostehun metro oinez egiteko goiz osoa behar nuen eta eguneko 24 orduak oxigenoarekin eta aerosolarekin egiten nituen. Ondoa laguntzeko baten bat behar nuen uneoro. Asko sufritzen da, baina transplantea egin eta orain oso ondo nabil", dio Gorostiagak.

Maguak "izugarritzko zorte ona" izan du. Gaixo zegoela ohartu eta bi urteren buruan bihotz berria du. "Aurretik ez nuen sufri-mendurik izan. Bihotza %25-30ean nuen lanean eta bihotza transplantatzeko unean %12an. Orain, berriz, edozein pertsona bezala egiten dit lan, %65-70ean. Bizimodu

datua

• **MAHAIAK.** Ekainaren 3an, Azpeitiko plazan eta ekainaren 7an Azkoitiko Maxi Eroskin informazio mahaia jarriko dute.

normala egiten dut, baina oso garrantzitsua da orain guretzat osasuna ondo zaintzea", dio Maguak.

Organu emaile izateak ere garrantzia du. "Niri birikak eman zizkidanak bost pertsonen bizia salbatu zuten", dio Gorostiagak.

LAGUNTZEKO BATUTA. Biak Atcore (Euskadiko Gaixo eta Bihotz eta Birika Transplantatuen Elkarte) elkarteko kide dira. "Medikuak transplante baten beharrea zaudela esaten dizunean, izugarritzko kolpea izaten da; informaziorik ez duzu inondik, jendea ez duzu ezagutzen eta galdera asko duzu buruan. Elkarteko kideok zain, gaixo dagoen jendeari eta elkarri laguntzeko eta informatzeko gaude", diote. ●



EDERTi

APAINKETA - DECORACION

Enparan 10,

Tfona eta faxa: 943.81.16.



**ZUMAIako
INSTITUTUA**

HEZKUNTZA ESKAINTZA 2003-2004

HEZIKETA ZIKLOAK

✓ ERDI MAILAKOAK

- Barazki, haragi eta arrain kontserbagintza, 1.400 ordu
- Ekipo eta Instalazio Elektronikoak, 2.000 ordu

✓ GOI MAILA KOAK

- Administrazio eta Finantzak, 2.000 ordu.
- Elikagaien Industriak, 2.000 ordu.
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak, 2.000 ordu

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: maiatzak 5etik 9ra, biak barne.
SARBIDE PROBAREKIN

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: ekainaren 2tik 11ra, biak barne.
SARBIDE ZUZENA

Matrikula egiteko aldi arrunta: ekainaren 30etik uztailaren 4ra, biak barne.

Matrikula egiteko aparteko aldia: uztailaren 24tik 28ra, biak barne.

BATXILERGOAK

✓ TEKNOLOGIA

✓ GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

✓ NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: maiatzaren 5etik 9ra, biak barne.

Matrikulazioa egiteko aldi arrunta: ekainaren 30etik uztailaren 4ra, biak barne.



BADUZU NON AUKERATU

Garmendipe Kalea, 1 20730 Azpeitia Gipuzkoa
Tel. 943 15 71 15

gotain



gotain
LURRINDEGIA

Erdikalea 3. 20730 Azpeitia Tel. 943 814 358

Luziano Lazkano



● **1979-1983.** EAJkoa. Bere alderdiak zuengehiengo osoa Udalean (11 zinegotzi 17tik).

Imanol Elias



● **1983-1985.** EAJkoa. EAJ eta EA banatu zirenean alkatetza utzi egin zuen Eliasek.

Jose Mari Bastida



● **1985-2003.** EAJkoa. Eliasek utzi zuenean jarri zen alkate. Orduan hamabi zinegotzi zituen EAJk. 1987-1991n zortzi. 1991-1995ean bederatz. 1995-1999era zortzi lortu zituen, eta azkeneko legealdian zazpi. Hemezortzi urtean egon da alkate Bastida.

UDALEAN ORAIN, ZER?

14an osatuko da taldea: EAJ-EAk 15 zinegotzi, PPK eta PSE-EEK bana; nola hartuko du parte Habeak?

Iterea Uranga

Pasatu dira udal hauteskundeak, eta orain zer? Udal talde berria ekainaren 14an osatuko da. EAJ-EAk hamabost zine-

gotzi izango ditu eta alkatetza berea du; Julian Eizmendi izango da alkate. Habeak 2.027 boto lortu ditu, baina ez du ordezkariarik izango, "legez" kanpo utzi dutelako. PSE-EEK eta PPK zinegotzi bana edukiko dute.

PSE-EEK, 1979-1987 artean ordezkari bat izan zuen. Baina PPK inoiz ez du izan. Habea orain Espainiako Auzitegi Konstituzionalak "legez" kanpo uzteak bi alderdiok Udalean ordezkari izatea eragin du.

Ezker abertzalea aurreneko 1983an aurkeztu zen udal hauteskundeetara, eta bi zinegotzi lortu zituen. Harrezkero legealdi guztietan ordezkari izan du. Orain ordezkari gabe izango da, baina Udalean lan egiteko asmoa azaldu du Habeak. Nola? Eizmendi alkategaiak "emaitzak ondo kudetu" nahi dituela azaldu du. Ikusi egin behar zer gertatuko den hilaren 14an, eta gero ere bai. ●

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



J.M. Iparragirre B.H.I.
Santa Barbara Bidea z/g
Urretxu 20700
Tel./Faxa: 943-721413/721403
jmiparragirre@edunet.es

Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D ereduetan

TITULAZIOA

- ▶ Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

IRAUPENA

- ▶ 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

LANBIDE ETORKIZUNAK

- ▶ Ospitaleko erizain laguntzailea
- ▶ Lehen artapenetako laguntzailea
- ▶ Kontsulta pribatueta
- ▶ Zaharren egoitzetan
- ▶ Hortz-kliniketan laguntzailea
- ▶ Gaixoen zaintza

IZENA EMATEA

- ▶ Ekainaren 2tik 11ra, biak barne

Oharra: ikasleen garraiorako dirulaguntza aurreikusten da

udal erabakiyek

Torturaren Aurkako Taldearen plana onartu zen udalbatzan

Azpeitiko Torturaren Aurkako Taldeak bederatzita puntotan oinarritutako tortura ekiditeko plana eta herrian bildutako 1.200 sinadura aurkeztu zituen Azpeitiko Udalean. Prebentzio plan horri udalaren atxikimendua ematea eta erabakiaren berri herriari jakinaraztea eskatu zuen. Mozioa maiatzaren 5ean egindako udalbatzan bozkatu zen. Mozioa EAJ, EA eta ASA udaleko hiru alderdiek aho batez onartu zuten.

Loiola-biden eskultura berri bat jartzea erabaki du udalak

Loiolabiden emakumearen irudi bat eserita islatzen duen eskultura bat jartzea erabaki zuen udalak maiatzaren 5ean egindako udalbatzan. Ez zen erabateko adostasunez hartu erabakia, ASAk ezekoa eman baitzuen, "eskultura hau eskatzeko eta egiteko erabakiaren berririk" ez zutela argudiatuz. EAJ eta EAren onarpena izan zuen. Eskultura Xebax Larrañaga azkoitiar eskulturgileari eskatu zaio.

Produktu ekologikoen proiektu berri bat abian jarriko da Azpeitian



Azpeitian denda bat ireki nahi da.

Nerea Uranga / Ingurugiro Etxeak, Azpeitiko, Azkoitiko, Zumaiako, Beizamako, Errezilgo eta Aizarnazabalgo udalen laguntzarekin, produktu ekologikoen kooperatiba bat sortuko du. Kooperatibaren helburu nagusia produktu ekologikoen produkzioa eta kontsumoa bultzatzea da.

Kooperatiba produktu ekologikoen produktoreek eta kontsumitzaileek osatuko dute, eta kooperatibako bazkide egiteko, lau urteko epean 120 euro jarri beharko dituzte. Hau da, lehen urtean 60 euro or-

daindu eta datozen hiru urtetan urteko 20 euro. "Orain kooperatiba abian jartzeko jarri den kopurua da, baina aurrerantzean kooperatibako bazkideek berriak erabaki beharko dute ezer gehiago ordaindu beharko duten hala ez", dio Iosune Orbeago Ingurugiro Etxeko teknikariak.

Bazkide egiten diren kontsumitzaileek bertako produktuak eta ekologikoki ekoiztutakoak kontsumitzeko modua izango dute, baita erosketak telefonoz eta internetez egiteko modua ere. Hala ere, aurrerantzean Azpeitian produktu ekologikoen denda eta biltegi txiki bat ere irekitzeko asmoa dute Ingurugiro Etxeko ardura-dunek.

Proiektuaren hiru ardatzak

1 • BASERRITARRAK. Urola-Kostako baserritarrei zuzendutako produkzio ekologikoen inguruko formazio plana jarriko da abian.

2 • KONTSUMITZAILEAK. Kontsumitzaileen sentsibilizazioa bultzatzeko kontsumo ekologikoen abantailen berri emango da.

3 • KOMERTZIALIZAZIOA. Produktu ekologikoen komertzializaziorako estrategia desberdinak aztertuko dira; tartean, produktu ekologikoen kontsumitzaile eta produktoreek osatuko duten kooperatiba dago, orain martxan jarri nahi dena. ●

gurien...

mendizalea

Joxe Ramon Agirre 'Marron'



"Azpeitiarrekin egin nuen lehen mendi irteera garrantzitsua"

Nerea Uranga / Joxe Ramon Agirre Marron-ek Lagun Onak M.B.-k Xoxoteko egunaren aurreko astean antolatutako emanaldietan parte hartu zuen. Ez da aurreneko aldia Azpeitira datorrena. Oraingoan Euskal Herriko, Pirinioetako eta Himalayako mendietan egindako hegaldien inguruko emanaldia eskaini zuen.

Errotonda egiteko lanak hasi dira

Sanjuandegiko errotonda egiteko lanak dagoeneko hasi dira —maiatzaren lehen egunetan hasi ziren—. Urtearen amaierarako lanak bukatuta izango direla eta autoentzako ez dela errepiderik itxiko azaldu du udalak.



Errotonda egiteko lehen lanak.

Udalbiltzaren aurkako polizia operazioaren salaketa udalean

Maiatzaren 12an egindako udalbatzan Sozialista Abertzaleek apirilaren 29an Udalbiltzaren aurka burutako operazioa salatzeko mozioa aurkeztu zuen. Mozio hori ez zen onartu, ASaren onarpena bakarrik izan baitzuen, baina EAJk beste mozio bat aurkeztu zuen eta honek udaleko hiru alderdien —EAJ, EA eta ASA— onspena jaso zuen. Bi mozioek Udalbiltzaren sorreran onartutako bost ardatzak jasotzen zituzten.

zer dago gaizki, zer soberan, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Ekainaren 20a (ostirala)

HELBIDEA: Uztarría, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Gemma kinkiladendako erosketari txartela

AURREKO ARGAZKIA...



...ETA SOLUZIOA



IRABAZLEA: Ainhoa Bereziartua



Ainhoa Bereziartua izan da 40. garailea. Etxe Zuri tabernan bi laguntzako afaria irabazi du. Argazkian, Ainhoa Bereziartua bera —ezkerrean— eta Etxe Zuri tabernako Iñaki Areizaga ageri dira.

● Mendi gailurretatik egindako hegaldien inguruko emanaldia ekarri duzu oraingoa Azpeitira...

Bai, hala da. Mendizaleontzat izugarritzko asmakuntza izan zen parapentea. Dena den, hegaldien kontuari pixka bat abentura edo kutsu komertziala kendu nahi izan diot.

● Euskal Herriko mendietan egin duzu hegan. Izarraitzen inoiz ibilia al zara?

Behin hegan egiteko asmotan igo nintzen Izarraitzera, baina ez zegoen haize egokia hegan egiteko.

● Azpeitiar mendizaleekin inoiz ibili al zara mendian?

Betidanik izan dut azpeitiar mendizaleekin

hartu-eman. Gure lehen mendi irteera azpeitiarrekin izan zen, Huascaranera. Azpeitiko jendea guretzat erreferentea zen, bagenekien eta Azpeitian mendirako zaletasun handia zegoela. Lehen irteera hura oso polita izan zen, eta garai hartarako inportantea. Askotan diogun bezala, mendiak lagunak egiteko balio du. ●

“Txapela familiari, botilleroari, masajistari eta entrenamenduetan sparring bezala lagundu didaten pilotariei eskaini diet”

Kepa Peñagarikano
(pilotaria)



Kepa Peñagarikano. / ENEKOITZ ESNAOLA

“Asko gustatzen zait nola idazten duen Nagore Aranburuk; euskaraz pentsatzen du eta niretzat hori klabea da umorea egiteko”

Anjel Alkain
(aktorea)

Gotzon Aranburuk preso azpeitiarrak gose greba utzi du 29 egun eta gero

Nerea Uranga / Valdemoroko kartzelan dauden euskal presoak, kartzelako egoera “jasangaitza” dela-eta, borrokaldi luzea egin ari dira aspaldian. Gotzon Aranburu preso azpeitiarra ere kartzela horretan dago, eta borrokaldian ari da. Egund gose greba utzita baldin badago ere; 29 egun egin ditu jan gabe eta sei egun ezer edan gabe. Ondorioz, oso egoera larrian egon da Gotzon Aranburu, 12 kilo galduta eta odolean azukrea asko jaitxita zuela.

Hasiera batean Valdemoroko euskal preso guztiak ekin zioten gose grebari, baina euren osasun egoera larritzen joan den heinean, utzi egin dute gose greba. Gotzonek eutsi egin zion gose grebari maiatzaren 22a arte, Jesus Mari Etxeberria eta

Bittor Goñirekin batera. Hau idazterako orduan (maiatzaren 29an), Etxeberriak eta Goñik gose greban jarraitzen dute, eta gainontzeko presoak eguneko 24 orduak ziegatik atera gabe daude.

UDALEAN. Maiatzaren 12ko udalbatzan Etxeraten izenean Azpeitiko Abertzale Sozialistek Valdemoroko presoan egoera salatzeko aurkeztutako mozioa eztabaidatu zen. Baina ez zen adostasunik izan, EAJ eta EA ez baitziren ados azaldu mozioarekin. Hala ere, Jose Mari Bastida alkateak Valdemoroko kartzelara deitu eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Giza Eskubideen agiria bidaltzeko konpromisoa hartzen zuela adierazi zuen udalbatzarrean. ●



Valdemoroko kartzelaren atariko argazkia.

Udalari eskatutakoa

- **KEZKA AZALDU.** “Udalak, alkateak edo alderdi politikoak Valdemoroko isolamendu galerian bizi den egoeratik kezka azaltzea”.
- **ESKARIA.** “Udalak, alkateak edo alderdi politikoak Jesus Mari Etxeberria isolamendu galeriatik ateratzeko eta espetxe araudiaren arabera dagokion modulora eramateko eskatzea”.
- **HITZARMENA BIDALI.** “Hitzarmen hau Madril III-ko (Valdemoro) Zuzendaritzari eta Madril III-ko Espetxe Zaintza Epaitegiari helaraztea”.
- **BISITARA.** “Udaleko ordezkari bat Gotzon Aranburu-rekin eta espetxeko zuzendaritzarekin elkarriketatzera joatea, gertatutakoaren inguruan informazio zuzena jasotzeko eta bigarren eskaera eta kezka azaltzeko”.
- **TXOSTENA EGIN.** “Egindako bisitarekin udalak txosten bat egin eta Eusko Legebiltzarrerara, Espainiako DGIPera eta giza eskubideen alorrean nazioartean kompetentzia duten erakundetara bidaltzeko eskatzen da”.

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatuan aukera handia

URBISTONDO MARGOAK

“KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK”

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

ACADEMIA DE FRANCES
FRANTSSES AKADEMIA

apunta
zaitez!

allons-y 15 00 92

Bustinzuriko Arrabala, 12 - 1

PILDAIN
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Biele

motxien

Begirale ikastaroa Azpeitian

Udaleko Gazteria Sailak aisialdi eta denbora liberako begirale titulua ateratzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Azpeitian izango da, eta bertan izena emateko epea ekainaren 20an amaituko da. Informazio gehiagorako 943 15 71 61 telefono zenbakira deitu beharko da.

Ekainaren 8an liburu baten aurkezpena

Azpeitiko zezen plazaren mendeurrena ospatzen dela eta, ekainaren 8an zezen plazaren inguruko liburua aurkeztuko da, 12:00etan udal-txean. Liburuaren aurkezpenaren ondoren, Azpeitiko zezenzaleen elkarteko eskultura eskaintza izango da zezen plazan.

Gazte Astea ekainean izango da

Azpeitian Gazteok Zer?! ek urtero antolatu ohi duen Gazte Astea ekainean izango da, oraindik egunak zehaztu gabe baldin badaude ere.



OIHANA ELDUAIEN

PRESOEKIN ELKARTASUNEZ. Maiatzaren 10ean Elkartasun Eguna egin zen herrian. Hainbat ekitaldi izan ziren tartean, era askotakoak: kirola, manifestazioa, umeen jolasak, bazkaria... Eta preso eta senideek gertu-gertutik herritarren berotasuna eta elkartasuna jasotzeko parada izan zuten.



JULIAN BARRENETXEA ABESBATZA

ERROMAN KANTARI. Julian Barrenetxea Abesbatza Erroman izan zen kantari, eta San Inazio eta Batikanoko San Pedro elizan abestu zuten. Bietan ere eliza bete egin zuten azpeitiarrek.

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

Otamendi
Betsi Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

kamisgarak
kime serigrafik

Tel./faxa: 943 85 71 77
Klara Donea, 36 AZKOITIA

domusa

kutxa
gizarte ekintza

Iñaki Iribar

'Joxe Mari Korta' sariduna

Ibilbide profesionalagatik, 2003ko Joxe Mari Korta saria jaso du Iñaki Iribarrek. Glualen gerente bezala 28 urte inguru egin ditu. Izatez getariarra da, baina urte askoan Azpeitian bizi da

“Industriak dirua kanpotik ekarri behar du”

Josu Azpillaga - Airea Uranga

Iñaki Iribarrek, Glualen urte askoan zuzendari izan denak 2003ko Joxe Mari Korta saria jaso du beste bost enpresarekin batera. Iribar “pozik” dago saria jasota. Orain aurrejubilatzea hartuta dago, baina noizik eta behin Glualera lanera joaten da. Glualen bertan egin genuen hitzordua Iribarrek.

• Zuretzat sari berezia izango da, Korta bera laguna zenuen eta.

Gaztetatik Joxe Mari Korta laguna nuen. Elkarrekin lan asko egin genuen. 1992an krisi handi bat izan zen eta Korta enpresarekin eta beste batekin kontsorzio txiki bat egin genuen, Alemaniako merkaturia irekitzeko, eta feria beretara mugitzen ginen.

• Nola gogoratzen duzu hil zuten 2000. urteko abuztuko egun hura?

Heriotza horrek asko hunkitu ninduen, adiskide handia bainuen.

• Joxe Mari Korta bera “fenomenoa” zela esan duzu.

Jatorra eta zuzena zen pertsona bezala, baserri-baserrikoa. Lehen torno-lanak baserrian egin zituzten anaien artean. Zumaiaiko ikastolan lehendakari izana, txirringulari taldearekin ibilia, euskara kontuetan oso zaletua, lanbide heziketako ikasketen bultzatzailea..., herriko aktibitateetarako izugarria zen. Enpresari ona, baina herri mailan ere oso estimatua zen.

• Saria enpresa ertain eta txikiei eta langileei eskaini diezu. Zergatik?

27 urtean ari naiz Glualen. Denok ezagunak gara, elkarrekin jardun dugu lanean. Teknikoki jende ona dago, eta langile

piloa, 25-30 urtean bertan lanean ari dena. Lan iraunkorra dago, ez bat-batekoa. Ibilbide profesionalaren saria da, eta nirea Gluali dagokio. Enpresa gaizki edo erdizka ibili bazen, ez genuen saririk jasoko.

• Saria ematean, ibilbide oso bat saritu dute. Azalduiguzu ibilbide hori.

Zarauzko Antonianon merkantileko ikasketak bukatu eta jarraian, 16 urterekin, Zarauzko banka batean aritu nintzen. Gero, Azpeitira bidali ninduten lanera, emaztea azpeitiarra nuelako. Orduan Getarian bizi ginen, neu getariarra bainaiz. Azpeitian Banco San Sebastian-eko zuzendaria izan nintzen 1974an. Gero, Glualen gerentea behar zutela-eta, bertan hasi nintzen.

• Zure ibilbideko unerik onena?

Askio izan ditut. Batez ere, enpresa hobetzen doala ikustean.

• Eta txarrena, gogorrena?

Bi aipatuko nituzke. Gure tailerrean istripuz hil zen Joxe Antonio Etxeberriaren eta Joxe Mari Kortaren heriotzako egunak. Bestela, barreneko eztabaidak..., baina hori postuak dakar.

“Nire ibilbide profesionala Gluali dagokio, enpresa gaizki edo erdizka balebil ez genuen saririk jasoko”

“Oinarria industria ona sortzea da, gero horrek zerbitzuak sortzeko aukera ematen duelako”

• Orain jubilatuta edo jubilatzeaz zaude?

Aurrejubilatzea hartuta nago, 65 urte laster beteko ditut. Batzutan enpresara etortzen naiz aholkuak eman nahian. Zorionez, gazte berri asko dago eta kolpetik dena ez uztearren joaten naiz.

• Adegin Urolaldeko enpresa txiki eta ertainen ordezkari ere ibili zara.

Eta banabil; aurten dira ordezkariak aldatzeko hauteskundeak. Hasieratik nago Adegin eta batzutan zuzendaritza batzordean ere egon naiz.

• Zer da zuretzat enpresaria izatea?

Ondasunak sortzeko lana egin behar da, eta enpresa gizartearentzat eta ondasunarentzat beharrezkoa da. Eta partaide direnek bere zatia jaso behar dute: langileek, ondoren hornitzaileek, gero hogasunak eta laugarren bazkideek. Irabaziak behar dituzte enpresek inbertitzeko, eta urte txarretan hobeto mantentzeko. Horrela, nahiz eta 1996an sute batek gure enpresako pabiloiaren zati handi bat erre, aurrera jarraitu genuen modu egokian. Azken 20 urtean krisialdi gogorak izan dira industrian, eta enpresak murriztu eta itxi ere bai.

• Baina, ez dirudi enpresariaren figura modan dagoenik: gure herrian enpresa txiki sortu dira azken urteotan. Zergatik?

Arazoi ezberdinak daude. Gaur egun enpresa berria sortu eta aurrera ateratzea ez da erraza. Eta gazte askok nahiago dute edo errazago saiatzen dira lanpostu on bat lortzen, enpresa bat sortzen baino.

• Oraindik liskar ugari sortzen da, bada, langile eta enpresarien artean? (Metaleko arloan urte honetakoa kasu).

Uste dut ahalegindu naizela hitz egin eta



NEREA URANGA

gauzak konpontzen, bidea hori dela uste baitut. Nik Glualeko langileekin kexatzeko ez daukat motiborik.

● **Azpeitia herri industrialia izan da batik bat, baina azken urteetan zerbitzuek hartu dute indarra. Zer irakurketa egin liteke honen inguruan?**

Mundu guztian dago joera hori. Baina aurrena industria behar da, kanpora lanak saltzeko; dirua kanpotik ekarri behar da. Oinarria industria ona izatea da, gero zerbitzuak sortzeko aukera ematen duelako.

● **Enpresa eta ekonomia aldatu egin da izugarri. Globalizazioa, informazio teknologia berriak... Nola ikusten duzu Azpeitiko enpresa mundua parametro hauetan?**

Azpeitian enpresak eta enpresako langileak asko hobetu dira. Jendea lanera gero eta gehiago ikasita dator, segurtasunean, teknikoki..., eta horrek ondorio onak dakartza. I+G eta heziketa profesionala ere bultzatu egin behar dira. Zergatik esportatzen da mundu osora? Hemen gai garelako; mundu globalizatu honetan saltzeko maila onean egon behar da, hor kanpoan ez dute ezer doan ematen.

Informatikari esker lanerako sistemak aldatzen ari dira. Horrekin, lan munda emakume gehiago sartu da, eta horrela jarraitzea espero dut.

● **Herri bezala, zer gabezia ditu Azpeitiak industria mailan? Zer egiteko bete behar dute erakunde publikoek industriagintzan?**

Industria aldetik industria lurra gehiago sustatu behar dira. Saihesbidea eta errepideak egitea ere beharrezkoa da, horrek eragin ditzazkeen kalte ekologikoak ahal den neurrian gutxituta. Erakunde publikoek laguntzak eman eta enpresa berrien sorrera bultzatu behar dute. Uste dut Eusko Jauriaritza ahalegin hori egiten ari dela SPRI bitartez. Baina beti gehiago egin deza-kegu.

● **Langabezia tasa baxua du Azpeitian. Baina lan baldintza txarrak salatzen dituzte behin eta berriz sindikatuek.**

Sindikatuak hori esaten dute, baina hemen lanpostuak sortu egin behar dira eta nork sortzen ditu? Sortzen dituenari aitzakiak jartzea ez da zaila. Sortzen ez dituenari ez dizkio inork aitzakiarik jartzen... Kontratu-en kontua aldatu egin da, baina mundua ere asko aldatu da. Hasieran, langile berriak nahiko eskasean dira; baina denbora aurrera joan ahala bere neurrira etortzen dira iraunkortasuna eta lansariak. ●



IGANDEAK

Azpeitiko igande arratsaldeak, ez dira merezi bezain koloretsuak edo ez dira nahi bezain mugituak. Kale bueltak eta izotzik gabeko pinazko zukuak behin behineko protagonista bihurtzen dira, landu gabeko eztabaida mingotsen inguruan. Aurreko gauean egindako bekatuak elkarri gogoratzten lagunduz igarotzen dira lagunarteko aurreneko minutuak, irribarre behartuak damu seinale disimulatuekin nahasten direla. Batek dio ez dakit zer egin zuela eta besteak; hori ez omen zen horrela izan, baina berdin dio, oroimen faltak ez dio batere laguntzen bere burua defendatzeko, eta isildu egiten da.

Bost minutuko isiltasunaren ondoren ironiaz jositako irribarre batek pipa azalen doinu monotonoa hautsi du. Oroimenetik erreskatatutako pasarte batek sortu dio irribarre ironikoa. Berari kontaturiko pasarte baten inguruan arituko dira ondorengo minutuetan.

Goizean goiz Exkerregetik bueltan Napolitana bat eskuan zuela, irribarre zakarrontzian aparkatu ondoren begiak igurtzi zituen, eguzkiak zitzadaka lantzantzen baitzizkion. Pausaje erabat motelarekin hutsuneak betez espaloi ertzak zauritzen zituen zapatila lokaztuekin. Etxerako bidea luze egingo zitzaion oraindik, aurpegi edo ahots ezagun asko inguratu nahi izango baitzituen bere besoetan.

Gaua luze joan zen denboran, baina motz bizipenetan. Laudorio narratsen bat edo beste galdu zen bien arteko distantzian, baina gehiagorik ez. Beraz, edukiak ez zuen garrantzirik, ia larunbat gau guztietan bezala, garrantzi handiagoa hartzen zuten ukituek, ferekek eta begiradek. Ukitu bakoitza aurrerapauso bat zen bihotz taupaden lasterketa zail hartan. Begiraden arteko borrokan galtzea zen bere asmoa, zaplaztekoak jaso eta batekin edo bestearekin zirri batzuk egin. Hori esan omen zuen kubata amaitzen zuen bitartean.

Napolitana dastatzen zuen bitartean banku batean eseri zen, inoren zain, goizari egunona behar den moduan eman ohi dioten goiztiarrak buruarekin nola edo hala agurtuz, ordainetan berak bidalitako agurraren antzeko keinu moduko bat eta ziurrenik ezer onik izango ez zuten barne komentarioak jasoko zituen. "Orain ere itxura ederrarekin bueltatuko da etxera, koteraino alkoholez bustita eta gainera besapen dituen egunkaria eta ogia ordaindu gabe, a ze gazteria, a ze pena". Baina ez zion axola, ziurrenik bere buruarekin gustura aurkitzen ez zen goiztiarrak lo ezin hartuta jaiki beharra izan zuen. Hori pentsatu zuen bere burua nolabait kontsolatzeko

Napolitana amaitu zuen, beno guztia ez zuen barne-

HILEKO GALDERA.


Hauteskundeak obrak egiteko burutzen al dira? Beraz, obrak egin behar diren bakoitzean hautestontziak 'ilusi-hotzez' bete beharko al ditugu?

ratu, azkeneko zatia eta normalean zatirik goxoena izan ohi dena lurrera erori zitzaion eta birao batean ibaira bota zuen. Bankuan eserita jarraitzen zuen, begiak itxita, Exkerretegin agurtu gabe utzi zuen neska morenaren erliebea irudikatu nahian. Irribarre txikia sortzen zion egoera hark eta irribarre areagotuko zitzaion begiak ireki eta neska morena metro erdira sumatu zuenean.

Hirugarren pipa zorroa irekitzearekin batera, lagunen irri eta adarjotzeak areagotzen zihoazen. Bizkarran jasotzen zituen zorion kolpeak, hauen harridurarekin nahasten ziren.

Nola edo hala agurtu eta izerdi tantak lehortu ondoren, egoeraren kontrola bereganatzen saiatu zen eta neska morena etxerako bidean ote zihoan edo intentzioz gerturatu zitzaion ziurtatu nahian zera galdetu zion; ze, mozkorra pasatzen?. Azken hitza esan bezain azkar damutu zen bota zuenaz, eta nola edo hala konpontzeko intentziotan jarraitu zuen; esan nahi nuen ez zaudela hain mozkorra, etxera joateko moduan zaudela, ez, ez!! esan nahi nuen... Eta noski, neska morena azkar asko joan zen etxera, horrelako hitz goxoak entzun ondoren. Ez zuen espero horrelako irteerarik, Exkerretegin ez baitzuen horrelakorik entzun, beno, egia esan, musika gailentzen zen beste guztiaren gainetik eta onerako nahiz txarrerako komentario guztiak ke artean galtzen ziren.

Egia esan, horrelako pasarteak eta egoerak asko dira gure herrian eta agian ez da guztiz egia igande arratsaldeak motelak eta monotonoak direla Azpeitian. Igande arratsaldeak askotan Larunbat gauean jarraipenak izan ohi dira, modu narratiboan eta elkarri oroimena lapurtuz. Bizi egunak eta noski, gauak.



Uztarrria Kultur Koordinadora

Uztarriak egoitza berria du, etxe berean baina pisu bat beherago



Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarrria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerre (Azpeitia).
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarrria@topagunea.com

Web orria:

www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.900 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarrria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

Uztarriak egoitzaz aldatu zuen joan zen hilaren bukaeran. Etxe berean du (koartel zaharrean, gaur egun Arte eta Diseinu Ikastegia dagoena), baina pisu bat beherago —lehen ganbaran zegoen, bigarren pisuan, eta orain lehenengoan—. Orain ere Udalak utzitako lekuan.

laz egin zuen Uztarriak lokal berrituen eskaera Udalean, lehenengo lokalak lanerako ezaugarri egokiak ez zituelako betetzen: neguan hotza eta udan izugarritzko beroa, leihorik ez, aldizkarien ka-

xak bigarren pisuraino igo eta jaitsi beharra... Uztarriak Udalean iaz aurkeztutako hitzarmenean ere lokal aldaketa eskatzen zuen, baina hitzarmenik ez zen egin Azpeitiko Udalaren eta Uztarriaren artean. Aurten ere hitzarmenaren kontua atzeratzen ari da, hizketan hasiak badira ere bi aldeak.

Lokal berria, Arte eta Diseinu Ikastegiak orain artean erabili duen gela bat da, lehen pisuan dago, leihoak eta balkoiak dauzka, eta lehenengo lokala baino handiagoa da.

albiste txikiyek

'Uztarrria.com' elastikoak berriz saltzen

Uztarrria.com elastikoak aurten berriz ere salgai jarriko dira herriko ondorengo tabernetan: Etxe Zurin, Urtzin eta Mendizaletan. Elastikoak hamar euroko salneurria izango dute. Manga noztzekoak dira, eta hiru koloretan daude: morea, laranja eta urdin argia.



Antxietak dirua Uztarriari

Antxieta Antzerki Taldeak desegitea erabaki zuen joan den martxoan, eta berak zuen ondarea kultur taldeen artean banatzea erabaki zuen. Hala, materiala Lakrikun Antzerki Taldeari utzi dio eta dirua —bi mila euro— Uztarrria Kultur Koordinadorari emango dio, kultur egitasmoetan gastatzeko. ●

660 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZZTARRIAN

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

KODE POSTALA:

TELEFONOA(K):

POSTA ELEKTRONIKOA:

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarrria@topagunea.com

Ekainaren bigarren hamabostaldian kalean izango da euskarazko egunkari nazional berria. 'Egunkaria'-ko langileek abiatu dute proiektua, eta herritarren eskura akzioak jarri dituzte salgai

Azpeitian

59.000

**EURO BEHAR DIRA
BERRIRAKO**

[oraingoz, 8.000 euro bildu dira]



DENDATAN, TABERNATAN... Kontzientziazioa pizte aldera, *Hemen akziodunak gara* pegatinak jarriko dira akzioak erosi dituzten dendatan, tabernatan... Akzioak, Sarea Informatikan, Luba Ahokularitzan, Urbistondo Margoak-en eta Uztarran eros daitezke (943 150358).

[ban Arregi]

Ekainaren bigarren hamabostaldian euskarazko egunkari berria kalean izango da, *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta lau hilabetera. Horretarako, baina, dirua behar da; horregatik, herritarrei egunkari berria argitaratuko duen enpresan parte hartzeko aukera zabaldu zaie, 50 eta 300 euroko akzioen birtartez. Euskal Herrian diru bilketari jarri zaion helburua: bost milioi euro. Azpeitian, 59.000.

Duela hilabete abiatu zen diru bilketa kanpaina, *Berria berri* lemapean, *Egunkaria*-ko 151 langileren ekarpenarekin (60.350 euroko kapitalarekin abiatu zen Euskarazko Komunikazio Taldea S.A. enpresa), eta ordutik dirua biltzen ari da Azpeitiko Herri Batzordea ere.

Koadrilaz koadrila, familiaz familia, dendaz denda, enpresaz

'EGUNKARIA'-REN ALDEKO JAIK

- **EKAINAK 7 (Azpeitian).**
 - **10:00:** Umeek egindako marrazkiak. Panel erraldoiak bakoitzak berea egiteko.
 - **12:00:** Bizikleta martxa.
 - **14:00:** Bazkaria azoka plazan.
 - **17:00:** Triki poteoa.
 - **18:00:** Kontzertua. Uztarriaren II. Kulturaldia. *Pain Full* taldea, Korralen.
- **EKAINAK 14 (Donostian).**
 - **18:00:** Belodromoan, egunkari berriaren aurkezpena eta kontzertua: Kepa Junkera, Betagarri eta Ken 7.
 - **Autobusak egongo dira.**

enpresa ari dira akzioak saltzen, egunkari berrirako dirua biltzen; eta, jendea akzioak erosten ari bada ere, "oraindik nahikoa motel" doazela diote. Egunotan jarri dituzte martxan *Koadrila bat akzio bat* edota *Familia bat akzio bat* bezalako kanpainatxoak Azpeitian ere.

LEHENGO BIDETIK. Egunkari berriak *Euskaldunon Egunkaria*-ren ildo nagusiei jarraituko die. Lehengo lan taldearekin jarraitzea da asmoa, eta egunkari berriaren egoitza nagusia ere Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean egongo da, justu prezintatua dagoen egoitzaren pare-parean.

Administrazio Kontseilua osatzeko bidean da. Lehengoarekin kontaktzen dute, eta haietako batzuk izango dira enpresa berriko zuzendaritza organoan ere, baita jende berria ere.

Herritarrei ez ezik, gunkari berriaren bultzatzaileak zuzendu dira instituzio publikoengana ere, diru bila. Hala, instituzioei—udalei, Eusko Jaurlaritzari, diputazioei— diru laguntza bidez laguntzeko proposatu zaie, baina kapitalean parte hartzeko bide bat ere zabaldu zaie, botoirik gabeko akzioen bitartez.

Azpeitiko Udalarari ere eskatu zaio *Egunkaria* diruz laguntzeko; oraindik ez du erantzun.

bideoa



iritzia

Uztarria Kultur Koordinadora

DIRUA EZ BADA LORTZEN, PORROTA

Euskaldunak bai, baina euskaltzaleak ere ba gara azpeitiarrok? Orain ikusiko da garen edo ez garen. 59.000 euro. Horixe da Azpeitiak duen erronka. Egunkari berria jaioko bada, horixe da Azpeitiak bildu beharreko diru kopurua. Dirurik ezean, euskarazko egunkaririk ere ez.


Azpeitiarrok (ere) gogor erantzun genuen *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean. Donostiako manifestazioa joan egin ginen, eta martxoaren 13an herria gelditu egin genuen. *Egunkaria*-ren alde, itxieraren kontra kalera atera ginen azpeitiarrok (ere).

Baina *Egunkaria*-ren alde egotetik *Egunkaria*-ren alde egitera pasatu behar dugu. Euskarazko prentsaren alde egitera. Eta horrek jarrera argiak eskatzen ditu, ekintza argiak: bakoitzak ahal duen neurrian, eros ditzala egunkari berrirako akzioak; bakoitzak, ahal duen neurrian, egin dadila harpidedun. Irakurri euskaraz. Egin publizitatea euskal prentsan. Lagundu, instituzioetatik, egunkari berria.

Egunkaria zelako, eta datorren egunkari berria izango delako euskarazko egunkari nazional bakarra. Independentea. Zabala. Baterakoia. Euskaltzalea. Behar genuena eta behar duguna. Azpeitiak erronka handia du, erronka handia dugu azpeitiarrok esku artean: 59.000 euro. Ez lortzea porrota litzateke. Eta orain ikusiko da garen edo ez garen.

HERRITARREN ALETXOA EUSKARAZKO KAZETA BERRIAREN ALDE

Azpeitiarrak laguntza ematen ari dira euskarazko egunkari berria egiteko. Batzuek akzioak erosi dituzte, banaka edo taldean; besteak harpidedun egin dira. Bakoitzak berea eman du Oihana Elduaen





MALLAS-EKO LANGILEAK

● **AKZIODUN.** Lanuzteak ez zion Mallaseko langile guztiei eragin. Denak bustitzeko modua aurkitu eta 300 euroko bi akzio erosi dituzte.

● **LANTEGI GUZTIAK.** Beraien lantegiko kortxoan bezala lantegi guztietan akzioak egotea egokia litzatekela diote.

Mallaseko langileek 300 euroko bi akzio erosi dituzte, "elkartasuna adierazteko eta egunkari euskaldun bat esku artean edukitzeko gure ekarpen txikia egiteko".

Euskal Herrian lanuztea egin zen martxoaren 13an, *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera salatzeke. Azpeitian ere jarraipen handia izan zuen lanuzteak industria munduan, eta Mallaseko langileek beraien makinak gelditu zituzten ordubetez. Hala ere, lanuztea ez zuten langile guztiek egin. Erreleboetako lan sistema dela-eta goizeko taldeari baino ez baitzion eragin 11:00etatik 12:00etarako lanuzteak.

"Batzuek lanuztearekin adierazi zuten elkartasuna, baina bakoitzak bere ekarpena egin behar zuela uste genuen". Guztiak bere aldetik zerbait emateko sistema baten bila hasi ziren.

"Ordubeteko lanuzteak hamar bat euroko kosto ekonomikoa du gutxi gorabehera", langileek diotenez. Beraz, "lanuzterik egin ez zutenek hamarna euroko ekarpena egitea adostu genuen". Halaxe egin zuten. Argazkiko hiru langileek bildu zuten dirua, eta bildu ondoren *Egunkaria*-ren aldeko herri batzordearekin harremanetan jarri ziren, 600 euroko balioa duten akzioak erosteko.


Orain, lantegiko kortxoan daude akzioak. "Dirua biltzeko modu egokia izan daiteke lantegietakoa, eta gurean bezala beste lantegietako kortxoetan ere akzioak egotea positiboa litzateke".


PILOTARIAK AKZIODUN

- **KEPA PEÑAGARIKANO.** Pilotariak ere euskarazko egunkariaren beharra dutela dio. "Egin dutena egiteko ez dago eskubiderik".
- **DENERAKO PREST.** Harpidedun egin da, eta akzioak ere erosi ditu. Beste zerbaitekin egin behar bada, hori ere egingo duela dio.

Egunkaria-ren itxierak berari ere eragin ziola dio Kepa Peñagarikano, eta "laguntzeko aukerarik baldin badugu, zer gutxiago!" dio. Harpidedun egin zen hasieran, geroago akzioak ere erosi ditu. "Nik ere nire ondar alea jarri nahi izan dut" dio; "horregatik egin nintzen harpidedun".

"Euskarari eta Euskal Herriari egin diotena egiteko ez dago eskubiderik eta euskarazko egunkari berriaren alde egin dezakedana egiteko prest nago", dio bigarren mailako buruz buruko txapeldun berriak, ziurtasun osoz. "Harpidedun egitea erabaki dut, eta beste zerbaitekin egin behar bada ere egingo dut".





KOMERTZIOAK

● **EDUARDO BERASATEGI.** Erdi ka-
lean du harategia, eta akzioak es-
kaintzera joan zitzaizkienak gustura
hartu zituen; 300 euroko akzioa ero-
si zuen.

● **EUSKARA.** *Egunkaria* ixteari go-
gorra iritzi dio eta bakoitzak bere
alea eman behar duela uste du.

Euskararen alde dagoela dio Edu-
ardo Berasategik, eta euskaraz
zegoen egunkari bakarra ken-
tzen saiatu izana ez du onartzen.
Denon laguntzarekin egunkari berria
argitaratzeko aukera dagoenez, bere
alea ematea erabaki du, eta 300 euroko
akzioa erosi du. "Euskara gure hizkun-
tza da, eta ahal den heinean lagundu
nahi izan diot, sentimentu guztiarekin".
Euskarazko egunkari bakarra ixtea "go-
gorra" dela dio.

"Espainiatik denak kontra izan arren,
gure hizkuntza salbatzeko zerbait egin
beharra" dagoela uste du, eta horretara-
ko bakoitzak berea aportatzea "garran-
tzizkoa" ikusten du. "Denontzako izango
da ona euskarazko egunkariarentzat
emandako laguntza".

AKZIODUN ETA HARPIDE


● **IÑIGO AGIRRE.** Agirre opariak
dendan erosi ditu akzioak, bere lan-
tokian. 50 euroko bi akzio.

● **2. EGUNKARIA.** *Egunkaria*-k le-
hen eta *Egunero*-k orain beti egiten
die bisita etxera; hala ere, *El Diario*
Vasco dute lehen gonbidatua.


Euskaldunon *Egunkaria*-k argia
ikusi zuenean "bezero" egin
ziren, eta orain ere beraien
laguntza eman nahi izan diote
kazeta euskaldunari, akzioak erosiaz
eta harpidedun eginaz.

Hala ere, *Egunero* "bigarren egunka-
ria" da beraien etxean, *Diario Vasco* bai-
ta "erreferentzia" betidanik, ohituraz
edo.

Otsailaren 22ko Donostiako manifesta-
zioa ekarri du gogora "erabaki nazkante
horren aurrean", eta manifestazioko
erantzuna "han bakarrik ez dadila gera-
tu". "Ahal den mailan" akzioak hartzera
animatuz, "banaka ezin bada binaka,
edo familiaren artean, koadrilan...".



Gorrotoa ta grina gaiztoa
odolean daramate
gure herria Espainia dela
noiznahi esaten digute
alferrik dabiltz egunen baten
aitortu beharko digute
beste herri bat badela hemen
Espainiatik aparte.



UDALETXEAN ETA ETXEAN

- **IMA EPELDE.** Udaletxean egiten du lan. Senarrarekin eta bi alabekin bizi da.
- **HARPIDEDUN BERRIA.** *El Diario Vasco* erosten zuen lehen, orain *Egunero*. Euskarazko kazeta berriak irauin dezan harpidetzak behar direla dio.

Ima Epeldek udaletxean egiten du lan, eta *Egunkaria* itxi zutenean harpidedun egin zen *Egunero*-n, itxierak eragin zion "amorrugatik". Lehen, tartean behin erosten zuen *Egunkaria*. "Lehen *Diario Vasco* erosten nuen, igandeetan-eta, baina *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik euskarazkoa erostea erabaki nuen".

Euskal prentsa lagundu beharra azpimarratzen du: "Euskal prentsa izan nahi badugu laguntza ekonomikoa beharrezkoa da, eta onena harpidedun egitea da". Akzioak erostea ere beharrezkoa eta ondo dagoela dio, baina, "eguneroa da benetako laguntza".





BASERRIAN

● **JOXE AGIRRE.** Herriko baserrietara ere iristen da *Egunero*; Joxe Agirre bertsolaria dugu lekuko.

● **ERA GUZTIETAKO LAGUNTZA.** Itxi eta berehala egin zen harpidedun *Oanda*, baina bere laguntza ez da hor amaitu, kanpainen akzioak kaleratu direnean 50eko bat eskuratu duelako.

Pena handia hartu zuen Joxe Agirrek *Egunkaria* itxi zutenean. “Zergatik itxi behar dute ba egunkari euskaldun bakarra? Guk ez al dugu bada eskubiderik?”. *El Diario Vasco* eta *Egunero* daude haien etxean ordutik. “Ordu arte ez nuen sekula *Egunkaria*-rik hartu” dio, baina, premiak behartuta, biak erosten dituzte orain; “egunkari erdia” ere bai. Agirrek berak ez du irakurtzeko zaletasunik, baina irakurtzen hasita nahiago du *Egunero* irakurri, “gure hizkuntzan” delako.

“Euskaldunok zergatik ez dugu bada eduki behar egunkari euskaldun bat?”, galdera egiten du, eta denak harpidedun egitera animatu nahi ditu. Akzioak ere “erosi behar” direla dio.

KOADRILAK

● **DENAK PIXKA BAT JARRIZ.** Bakoitzak bere ekarpena eginez 50eko bost akzio erosi ditu argazkiko koadrilak.

● **DENONTZAT.** Besteek ere beraiek bezala egitea nahi dute, euskarazko egunkari berria “denona eta denontzat” izateko.

Bakoitzak bere ekarpena egin eta 50eko bost akzio erosi dituzte koadrila osoaren artean, “Euskal Herrian euskarazko egunkari bat behar delako”. Horretarako, “diru asko behar da”, eta “bakoitzak bere apurra jartzen ez badu...”. Horrela bada, egin zezaketen “gutxienā” akzioak erostea dela iritzi diote.

“Lehe bailehen ikusi nahi dugu euskarazko egunkaria kalean”, diote, eta hori dela medio, herriko koadrila guztiak “animatu” nahi dituzte akzioak erostera, “bakoitzak ahal duen moduan”. Gainera, sortuko den egunkaria “guztiona eta guztiontzat” izango dela diote.



“Correo Taldea, indar politiko modura ari da jokatzeko”

German Kortabarria
(ELAren komunikazio burua)

“DV” antiterrorismoan izan daiteke eredu garri; aniztasunetik urrutiko dago”

Josu Landa
(idazlea eta kazetaria)

“Kriminalizazioa dago, kanpaina mediatiko izugarriaz lagundurik”

Txutxi Ariznabarreta
(LABen komunikazio burua)

“Hedabide batzuek batzuetan suari egur gehiago botatzen diote”

Adolfo Perez Esquivel
(Bakearen Nobel sariduna)

AZPEITIARRAK, “GAL MEDIATIKOA” ETA BESTE

Gaur egungo egoera politikoak, euskarazko egunkari berriaren sorrerak eta Azpeitia bezalako herri euskaldun eta abertzalean ‘DV’ nagusi izanak gogoetarako balio beharko luke. Edo ez?

Uztartaria

Abertzale batek ez, baizik eta espainiar-zale batek bota zuen galdera ABC-ren orrialdeetan: “Euskal herritarrek —botoemaile abertzaleak barne— prentsaren kontsumitzaile handiak dira, baina zergatik egiten dute paso *Deiatik* edo *Gara*-tik, beste egunkari batzuk erosteko?”. Eta zioen erantzuna “nabarmen-egia” dela eta ez zuela idatziko artikuluan. Baina hain garbi al dago erantzuna? Azpeitian %90 abertzalea da, baina Espainiako Konstituzioaren aldeko prentsa da nagusi: *El Diario Vasco*. Zeinek dauka erantzuna?

Azkeneko urteetan —batik bat Lizarragarazi abian jarri zenetik— EAJ deseroso jartzen ari da zenbait egunkari ez-abertzalerekin, eta orain dela aste batzuk, ABC-ren *informazio* baten ostean, Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak berak “GAL mediatikoa” dagoela esan zuen.

Joseba Egibar eta ‘iturriak’

Maiatzean izan diren udal hauteskundeetan Lizartzan EAJren alkategai zen Joseba Egibar, bera andoaindarra izan eta Donostian bizi arren, eta azalpenak ematera joan zen lizartzarren aurrera, hauen kexengatik. Lizartzar batek DV-ko

zerbait irakurri zion, eta hona Egibarren erantzuna: “Harrizten nauena da jendeak hainbeste DV irakurtzea, baina lehenengo eta behin esan behar dudana da nik ez erosi eta ez irakurri egiten dudala, eta nik DV-ri azkeneko lau urte eta erdiotan ez diot inolako adierazpenik egin, ez elkarrizketarik ez zeharkako adierazpenik, hala erabakita dudalako”. Eta ironiaz bukatu zuen azalpena: “Gero [artikuluetan] *fuentes* aipatzen da eta herri honetan dagoen gizonik garrantzitsuena *señor Fuentes* da; *Fuentes*-ek esaten ditu eta egiten ditu gauza guztiak”. Eta *Fuentes*-ek eragina du, baita gero boto abertzalea ematen bada ere. Azpeitian, esaterako. Baina Egibar gutxi izan gurean! *listinean*, bost baino ez.

‘DV’: sorrera eta 1978. urtea

Espainiako bigarren errepublikako garaian hasi zen *El Diario Vasco* argitaratzen, Donostian. 1934a zen, eta Joxean Elosegi historiagilearen artikulua batean aipatzen den bezala, “Madrilgo agintari eskuindarrek, bihurritzen hasia zen euskal lurraldeko bihotzean” sortu zuten DV, “Espainia handia, bakarra eta santua zazpi zeruetara goitituko zuen matxinada faxista eraginkorra prestatzeko”. 1936ko uztailaren 18an, ‘Gaur da eguna’ esanez zabaldu zi-



Prentsa kioskoa.

tuen bere orriak. 1978a arte, ordea, ez zen oso egunkari handia izan. *La Voz de España* kazeta zuen lehiakide Gipuzkoan; hain zuzen, *La Voz* zen herrialdeko egunkaririk irakurriena. Baina Espainiako Gobernuari ez zitzaion askorik gustatzen eta oraingotxe sistema bera erabili zuen: Polizia bidali egunkaria ixtera; langileen artean “iraultzaile independentistak” zeudelako. DV-ri mesede ederra egin zion itxiera hark, 30.000 aleko tiradatik 60.000kora pasatu zelako, eta publizitate guztia ere eraman zuen. Azpeitiarrak ere DV-ren erreinuan sartu ziren operazio *demokratiko* haren ondoren. Alegia, nolabait esanda, zilegitasuna eman ziotela ixteko erabaki hari.

‘ABC’-ren anaia lehengo urtetik

Correo Taldeko 19 egunkarietako bat da *azpeitiarron kazeta* —DV, alegia—, eta 2002ko urtarrilaren 1etik ABC egunka-

“Komunikabide batzuk Mugimenduaren prentsa bezalakoak dira”

Xabier Arzalluz
(EAJko EBBren lehendakaria)

“Manipulazioa hainbesteraino heldu da, zenbait komunikabide arerio politiko direla esan daitekeela”

“Komunikabideak gerra garaiko hegazkinak baino okerrago dira, egunero bonbardatzen gaituztelako”



Xabier Arzalluz.



Intenzionalitatez jokatzuz (I)

Egunkari bakoitzak ere gizartearekiko bere ikuspegia du, zilegi denez. Eta bakoitzak bere erara interpretatzen ditu albisteak eta gertaerak, intenzionalitatez jokatzuz. Batzuek “manipulazioa” ikusten dute hor. Horratx lehen adibidea. Orain dela hiru urte, Xabier Arzalluz EAJko EBBren presidentek ekitaldi publiko batean esan zuen, “1977an Francoren diktaduraren amaieran errepresioa” egon arren, indar politiko abertzaleek gehiengo osoa izan zutela EAEn, “eta inmigratio masiboa egon izan ez balitz nazionalismoaren indarra erabat izango zen nagusi”. *El Correo*-k hurrengo egunean argitaratu zuen Arzalluz etorkinen kontra bezala mintzatu zela ekitaldian, eta, hori argitaratu eta gero, egunkarietan-eta areagotu egin ziren Arzalluzen aurkako isekak. Arzalluzek orduan gutun irekia idatzi zion *El Correo*-ko zuzendariari, Angel Arnedori, bere hitzak “manipulatu” egin zituela esanez, eta gogor egin zion eskutitzaren bukareran: “Zuk, militar gisa, badakizu zer den indarkeria armatua, denok gaitzesten duguna. Baina egunkariko zuzendari gisa, badi-rudi ez duzula erreparorik indarkeria mediatikoa erabiltzeko zure arerio politikoaren kontra. Niri eta nire alderdiari, mina ematen digu erasorik gogorrenak *El Correo Español* egunkariaren bidez etortzeak; izan ere, [*El Correo*-ren] lehen inprimaldia, gerra zibilean, EAJri *manu militari* lapurtutako erro-tatiba eta makinariarekin egin baitzen”.

Intenzionalitatez jokatzuz (II)

Orain dela bi urte, 2001eko abuztuaren 20an, leherketa arraro bat gertatu zen Donostian, alde zaharrean. Ume batek eta haren amonak auto-jostailu bat topatu zuten taberna bateko komunean, hartu egin zuten, baina taberna kanpora irten, beren autora sartu, jostailuarekin jolasean hasi eta honek eztanda egin zuen. Ondorioa: amona hil egin zen eta hamasei hilabeteko

haurrak oso zauri larriak izan zituen (itsu gelditu zen). Segituan hasi ziren zurrumuruak: batzuek ETAren ekintza izan zitekeela, besteek ez zela hura ETAren jokatzeko era, beste batzuek “kale borrokaren” ekintza zela... Pasatu ziren egunak eta hilabeteak, eta ezker abertzaleko politiko ezagunak hasi ziren esaten “gerra zikina” zela hura; ETAk ez zuen bere egin hilketa eta kale borrokakoen izenean inork ez zuen ezer esan (beti aitortzen dituzte beraiek egindako ekintzak). Urtebetera, DV-k orrialde oso-ko erreportaia eskaini zion gaiari. Eta artikulua enfokea gertaera kontatzea eta haurren egoera azaltzea zen, hilketa kasualitatez gertatu izan balitz bezala. Ez zegoen ikerketa edo interpretazio berezirik.

Prentsaren Auzitegia eskatuz

Xabier Arzalluzek berriro hautsak harrotu zituen 2001ean, “komunikabideen gehiegikeriak bukatzeko” Prentsaren Auzitegia sortzea eskatu zuelako. PSOErentzat eskaera hura “lotsagarria” zen, PPrentzat “planteamendu faxista”. Eta Arzalluzek iritzi artikulua idatzi zuen *Deia*-n. “Guido Brunner enbaxadore alemaniarrek auzitegiaren erabateko indefentsioa, eta presio eta jazarpen mediatikoa jaso zuen, batez ere Espainiako bi egunkari inmoralek aldetik, Gobernu sozialistarekin eta Felipe Gonzalezekin zeukan harreman bikaina zela eta. Aldiz, *Stern*, Alemaniako astekari indartsuak Brunnerri buruz Espainian zer esaten zen jaso zuenean, Brunnerrek *Stern*-en kontra parte sartu zuen Hanburgeko prentsa delituen Salan. Salak hilabetera atera zuen epaia eta *Stern* zigortu egin zuen, jendaurrean hanka sartu zuela aitortzeko esanez, isuna ezarriz, baita indemnizazioa ere. Auzitegi Gorenak berretsi egin zuen epaia. Niri, berriz, orain dela urte batzuk hilketa baten ‘eragilea’ nintzela esan zidaten publikoki, eta behar morala eduki nuen parte hartzeko. Auzitegiak atzera bota zuen kereila, dialektika politikoan gehiegikeriak arraroak ez direla argudiatuz”. Egunkarietan abertzaleei buruz gezurrak eta irainak idaztea libre da. Eta guk, erosi eta irakurri. ▶▶

riaren anaia, Correok eta ABC-ren enpresak —Prensa Española— bat egin zutelako. Zertarako? Negozioa egiten segitzeko —ABC-rekin Correo Taldeak egunkari *nazionala* bazuen jada—, “askatasun zibilei lotua, ezinbesteko zerbitzu publikoa” emateko, eta, nola ez, Espainiaren batasuna defenditzeko. Honatx zer zioen bat egitearen berri eman zuten eguneko DV-ren editorialak: “*Todos nuestros medios se han constituido en referencia y soporte del ordenamiento constitucional, en adalides de la conciliación de la gran y rica pluralidad autonómica con la unidad de España y en leales servidores de la Corona, verdadero símbolo y depósito de los valores morales en que se funda nuestra convivencia en paz*”. Harrezkero, Correo Prensa Españolak —lehenengo astetik, Vocento— ehun milioi euro inguruko irabaziak ditu urtean. Azpeitiarrei esker, besteak beste. Izan ere, azpeitiarrek urtean 470 mila euro ematen dizkiote ABC-ren anaia DV-ri (78 milioi pezeta), egunero *El Diario Vasco*-ren 1.400 ale saltzen direlako gure herrian.

“Komunikabideetan kanpaina orkestatua dago, dena ETA balitz bezala”

Joseba Azkarraga
(EJn kontseilaria; EAKo kidea)

“Eztabaida zuzentzen eta errealitatea itxuraldatzen dute”

Arnaldo Otegi
(SAko legebiltzarkidea Gasteizen)



Arnaldo Otegi.

“Correo Taldeak-eta egunero beste herri bat marraztu nahi dute”

Txillardeggi
(idazlea)

“Bake edo “gerra” hedabideak?”

Ipar Irlandan, IRAk 1994an su-etena eman baino lehen, gauza bitxi eta interesgarri bat gertatu zen: Ipar Irlandan nagusi diren eta ideologikoki aurrez aurre dauden bi egunkari editorial bateratua argitaratu zuten egun berean, ados jarrita. *The Irish News* egunkari errepublikarra (144.000 irakurle) eta *News letter* unionista (133.000) dira bi egunkari horiek. Irakurleek ondo hartu zuten ekimena. Bakearen eta demokraziaren aldekoa zen. Badira urte batzuk Ipar Irlandan konponbide demokratikoaren bidean daudela. Euskal Herrian, berriz, egoera dagoen bezala dago. ETA-ren su-eten garaian izan zen aukerarik pausoak aurrera emateko, baina, Txema Ramirez EHUKo irakasleak orduan Bilboko jardunaldi batzuetan esan zuen bezala, “Euskal Herrian zabaltzen ari den bake prozesuaren aurrean komunikabideak oso jokoera ezkorra izaten ari dira, eta gatazka politikoa bideratu beharrean, oztopo bilakatu dira”. Ez zen ari egunkari abertzaleez. Joxe Azurmendi filosofoa ere ildo berean aritu zen su-eten garaian artikuluan batean: “Urte bat pasatuta [ETAk su-etena eman zuenetik], denok daukagu kezka handi bat; informazioarena; prentsa, irrati, telebisten manipulazioarena, edo treguarik gabeko gerra mediatiko etengabearena”. Izan ere, Espainiaren batasuna arriskuan zen, eta hori saihestu beharra zuten ABC-k eta.

‘Egunkaria’-ren itxiera dela eta

Otsailaren 22an egin zen Euskal Herriko aspaldiko manifestaziorik handienetakoa: Donostian, *Egunkaria*-ren itxiera zela eta. Hurrengo egunean DV-k editorialean esan zuen manifestaziora joan zirenek “jarrera biktimista” zutela. Ikusten da: biktimarena egiten zein eta egunkari baten itxiera salatzen ari zirenak! Halaber, Jaurlaritzari Espainiako Justiziarekiko “errespetu” handiagoa izatea eskatzen zion DV-k. Beste bi

data. 1: martxoaren 21ean argitaratu zen Euskal Herrian lan egiten duten komunikabideetako langileen *Egunkaria*-rekiko atxikimendu zerrrenda, eta DV-tik hamaseirenak baino ez zeuden. 2: maiatzaren 23an, *El Correo*-k bi egunkariaren itxiera salatu zuen editorialean; Marokon izandako itxieraz ari zen, ez *Egin*-ez eta *Egunkaria*-z...

Euskara eta ‘Diario de Navarra’

Aurten ari da betetzen bere sorreraren amendeurrena *Diario de Navarra*. Nafarroako egunkari nagusia da, baina ez da egunkaria soilik. 1936an Francoren altxamenduaren aldeko jarrera garbia eduki zuen. Nafarroan bertan milaka herritar xume erail zituzten orduan, eta *Diario de Navarra*-k ez zuen ezer informatzen. Hala iritzi ziolako bertako zuzendariak: Garcilasok... Francoren aldeko politikaria ere bai baitzen aldi berean: Bloque de Derechas-eko diputatua. Orain ere oso-oso egunkari eskuindarra eta Espainia-zalea izaten segitzen du *Diario de Navarra*-k. Euskararen kontrako sutsua da, baina UPNren Gobernuak, 2002an *Egunkaria*-ri diru laguntza kendu zion bitartean, bere egunkariari dirua eman egin zion astean euskarazko orrialde bat egiteagatik, nahiz eta *Diario de Navarra*-k laguntza eskaera epez kanpo egin zuen.

‘Correo’-ri boikota eta kontraesanak

Javier Atutxak 1996an gutun berezi bat bidali zien alderdiko afiliatuei, Bizkaiko EAJren lehendakaria zenean. Eskutitzeko agindua: “*El Correo Español* ez erosi, ez kolaboratu berak antolatutako ekitaldi edo programetan, ez sartu publizitatea, eta mezu hau helarazi gure botoemaileei, hauek ere horrela joka dezaten”. Bistan da ez ziotela kasu handirik egin, *El Correo* baita nagusi, eta nola!, Bizkaian. Eta bistan da EAJk berak ere ez duela betetzen agindu hori. Izan ere, Bizkaiko Diputazioak bere iragarkiak Correo Taldeko agentzia baten bitartez bideratzen ditu; alegia, Correo Taldeari dirua ematen diola horrela.

Bi esaldi

Juan Joxe Ibarretxe EAeko lehendakariak Gara-ren lehen zenbakiko iritzi artikuluan, izenburuan: “Egia baino ez da albistea”. Jose Antonio Zarzalejos, egun ABC-ren zuzendariak ETAk su-etena eman zuen urtean, 1998an, DV-n, artikuluan batean, lord Northcliffe delako batek behin esan zuena gogoratuz: “Informazioa, norbaitek nonbaiten ezkutatu nahi duen zerbait da, beste dena propaganda da”. ●

† FRANCISCO FRANCO BAHAMONDE

(Caudillo de España, Generalísimo de los Ejércitos y Jefe del Estado Español)

† JOSE ANTONIO PRIMO DE RIVERA Y SAENZ DE HEREDIA

(Fundador de Falange Española y Jefe Nacional de Falange Española de las J.O.N.S.)



La Delegación en Guipúzcoa de la FUNDACION NACIONAL FRANCISCO FRANCO os pide que elevéis a DIOS vuestras oraciones por las almas de tan esclarecidos hijos de ESPAÑA, así como por las de tantos compatriotas que siguieron su ejemplo con la ilusión de alcanzar para todos los españoles una PATRIA cada vez más justa y entrañable.

San Sebastián, 20 de noviembre de 2002

ORAINDIK ERE BAI! Iazkoa ez zen izan lehenengo aldia. Urtero irteten da *El Diario Vasco*-n azaroaren 20an Franco espainiar diktadorearen eskela, baita Jose Antonio Primo de Riverarena ere. Francoren Fundaziok eskatzen du jartzea eta DV-k, onartu.

DESS

SOMIERRAK SOFAK SILOIAK KOLTXOIAK ARMAIRUAK

ARMAIRUEN AUKERA ZABALA

KIROLDEGI AURREAN GAUDE

ATSEDENAZ JAKITUNAK

A Z P E I T I A

HARZUBIA HIRIBIDEA, 51

TEL./FAX 943 15 14 41



Tuko

LAGUNTZA TEKNIKOAK



ADIN NAGUSIENTZAKO
ETA
EBAKUNTZEN ONDORENGORAKO
ALTZARIAK

- ✓ OHE ARTIKULATUAK
- ✓ ESKAREN KONTRAKO KOLTXOIAK..
- ✓ BAINUGELLEN EGOKITZAPENA
- ✓ ESKAILERAK IGOTZEKOAK...
- ✓ GURPILDUN AULKIAK



HARZUBIA HIRIBIDEA, 51

TEL.: 605 / 707984

datue

1.200 sinadura bildu ditu Azpeitian Torturaren Aurkako Taldeak berderatzi puntutan oinarritutako tortura saihesteko plana babesteko.

dato historikue

1956 ko uztailaren 15ean inaguratu zuen Aranburu gotzainak Xoxoten dagoen San Inazioaren estatua.

esaldiye

“Euskal Herriko eguraldiaz informatzea zaila da, sei ordutan erabat aldatu daitekeelako”

Aitor Egurrola
(Eusko Jauriaritzako Meteorologia eta Klimatologia zuzendaria)

liburutik ttak

“Sozialista nola izan zintezke?’, esaten digu zaharrak: sozialistak euskaldunon etsai dira. Ez abertzaleon etsai, katolikuon etsai, baina euskaldunon etsai. Eta: sozialistak; ez sozialista horiek edo haiek, baina, sozialistak, denak. Zaharrak ez du asko ikasi liburuetan. Ikasi, ordea nahiko egin du, bizitza den liburuan. Zaharrak ikasi duena, da, sozialistak, edo hobeto, PSOE-sozialistak, azkenean ez direla PNVren, edo Estatu proiektuaren etsaiak, euskaldunon eta Euskal Herriaren etsaiak baizik.”

‘PSOE eta euskal abertzaletasuna’. Joxe Azurmendi. Hordago argitaletxea. 1979. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



UZTA GARAIKO NEURRIA

Ez dira gaur egun txorimalo gehiegi ikusten soroetan, belar eta arropa zaharrez osatuta zutik egoten zirenak inoiz haizeak lurrerazten ez bazituen behintzat. Nonbait orain soroa zaindu beharrik ez da, garai batean garia egiten zenean bezala. Noizik behin ikusi ohi ditugu egur luzeak lurtean sartuta, goiko muturrean trapu zahar bat edo haizeak dantzatzeko duen plastikosko tira bat dutela. Txoriak tontoak direlakoan jartzen di-renak seguruenik, baina kontuan izanda an-tzinako txorimalo artistikoei beldur gehiegirik ez ziotela, oraingo horiei pentsa dezakegu zer egingo dioten...

Hau guztia 1800ean azpeitiar agintariak hartutako erabaki batekin bat dator. Ohiko bileran bildu ziren maiatzaren 14an, eta txoriek zer-nolako kalteak sortzen zituzten aztertu zuten:

garia soroetan zenean edo baserrietako ganbaratan sartzen zirenean. Hormatxoria ez zela lo nonbait mokadu goxoak deika zituenean... Hurrengo igandeko meza nagusia amaitzean herrian bando bat zabaltzea erabaki zuten agintariak gaia sakondu ondoren, aginduz sendi bakoitzak lau hormatxori edo antzeko txori kaltegarri hil behariko zituela eta hilabete barru Udaleko eskribauarena eraman behar zituela. Agindua betetzen ez zuen sendiak bi pezeta ordaindu behariko zituen.

Zaila da jakitea azpeitiar agintariak hartutako neurriek zer-nolako erantzuna izan zuten, baina haizearen bultzadaz astintzen zen txorimaloaren ordez, beste era bateko mugimenduak eta noiznahi tiroka ari ziren hainbat txorimalo ikusteak, beldurtuko zituen seguruenik hormatxoriak ez ezik bela beltz zaharrak ere.

garai bateko Azpeitiye ...Iñaki Alberdik kontatua

Dantza eta musika pekatu

Dagoenekoa ez da bekatua bikotearekin dantzan egitea, baina duela urte batzuk ezin zen ‘agarraurik’ egin

(on Aranburu)

Azpeitiko bandak gaur egun ere kontzertu ugari eskaintzen du. Baina duela urte batzuk, orain baino askoz gehiago eskaintzen zituen. Hala dio Iñaki Alberdi bandako kideak: “Lehen noiznahi izaten genituen kontzertuak”.

Iñaki ederki oroitzen da Azpeitiko plazan jotzen zituzten kontzertuekin. “Orduan orkestinarekin jotzen genuen herriko plazan. Kontzertuak hamabostean behin izaten ziren eta 1.200 pezeta kobratzen genituen *bailableak* jotzeagatik”.

Baina ez pentsa edozer motako piezak jotzen zituztenik; soilik “bekaturik egiteko” arriskurik ez zutenak, bakarka dantzatzekoak alegia. “San Inazioetan bakarrik jotzen genituen *agarrauak*, urte osoan zehar bekatua zen eta”. Egaña alkate zegoenean, dendatik zaintzen omen zituen igande arratsaldeetako kontzertu haiek, “jendeak bekatuak egiten zuen edo ez

jakiteko. “Alguazilak behin baino gehiagotan bidali zizkigun musika gelditzeko esanez. Izan ere, jendeak bakarka egiteko piezak *agarrau* moduan dantzatzeko zituen eta hori debekatuta zegoen”. Ordutegi aldetik ere mugak izaten zituzten. “Hasieran gaueko hamarretarako amaitu behar izaten genuen, ordu horretatik aurrera bekatu zelako”.

Garai hartan, Azpeitian bi kongregazio zeuden: Mariaren alabak eta San Luisen semeak. “*Agarraua* egiten ikusiz gero kongregaziotik bidaltzen zintuzten. Nire anaia zaharra ni baino askoz formalagoa zen eta bera bidali egin zuten. Nik behin baino gehiagotan egin nuen *agarraua* baina ni ez ninduten kongregaziotik bidali”.

Plazako kontzertu haiek eskaintzeaz gainera, bazituzten beste betebeharrak batzuk bandakoek. Iñakik gogoan du nola joaten ziren pazko astelehenez Loiolara, goizeko zazpietako mezatarra. Egun horretan San Inazio zauritu zutela



Garai bateko txorimaloak galdu ziren; hona adibide bat. / IMANOL ELIASEN ARTXIBATEGIA

abizena

ALBERDI

● **Esanahia.** Arbel motako harria dagoen lekua.

● **Armarria.**

Urdinean, urrezko lau kate zati, armarriaren anguloetatik ir-teten dutela, gurutze bat osatuz. Gurutzearen erdian sinoplezko esmeralda bat dago, urrez kateatuta.



● **Abizenaren kokapena.**

- Azkoitia
- Beizama.

● **Abizenaren hedapena.**

- Azpeitia.
- Azkoitia
- Errezil.
- Beizama.
- Elgoibar.
- Eibar.
- Zestoa.
- Aramaio.
- Bilbo.
- Valladolid (Espainia).

'www.paisvasco.com/heraldica.' webgunetik hartua dago.

komunikabidiek

'ARGIA', BERRITUA, HOBEA

Egunkaria-ren itxierak eta euskarazko egunkari berriaren aldeko kanpainak itzala egin dio, baina **Argia** astekar-ian ere egon da aldaketarik eta berrikuntzarik, maiatzaren 14tik diseinu berria du-lako. **Argia**-n bertan ere, gainera, eragina izan du **Egunkaria**-ren kontrako operazioak, Pello Zubiria zuzendari albokoa atxilotu eta preso sartu zutelako —kalean da orain—. Trabak traba, ordea, **Argia** aldizkari dekanoa gai izan da piztuta ateratzeko, astekari hobea baita orain.

● **LAU TXORI HIL BEHAR.** 1800ean sendi bakoitzak lau hormatxori edo antzeko txori kaltegarri hil beharko zituela agindu zen

Defenditu beharra zegoen, ordea, herriko beharrei erantzuteko hainbat gari ez baitzen jasotzen, nahiz eta askok soroan landu eta, kanpotik ekartzeak kosto handia sortzen zuen.

Hasierako txorimaloak galdu ziren, armatuak gehitu eta hormatxoriak zer esanik ez...



Musika banda Erdi kalean. / 1981EKO HERRI JAIK

“Astelehen pazkoan Loiolan jotzen genuen lehen abestia ‘inmo nazionala’ izaten zen”

Iñaki Alberdi



ospatzen zen. “Bertara iritsitakoan jotzen genuen lehen abestia *imno nazionala* izaten zen. Meza amaitutakoan San Inazioaren martxa jotzen genuen eta gero hiru *jota*”. Loiolakoa amaitutakoan Arana kalearen ingurura etor-tzen ziren eta bertatik kalejira egiten zuten Madalena auzoraino, isildu ere egin gabe. “Ber-tan beste pieza batzuk jotzen genituen baina ez *imno nazionala*”.


Ez pentsa dena musika jotzea bakarrik izaten zenik. “Loiolako meza amaitutakoan, sakristauak barrura eramaten gintuen eta bertan pasta batzuk ateratzen zizkigun anisarekin”. Madalengan ere berdin egiten zuten nahikoa musika jotakoan. Iñakik gogoan du bera eta bere lagun bat lanera joan gabe gelditu zirene-koa, sakristauak emandako anisetik gehiegi edan zutelako; “Eskustako zelaietan siesta egin eta gero etxera joan ginen bazkaltzera”.

gertuko pasadizue

KALEKO BERTSO GIRO KASKARRA

● **JOXE LIZASO:** "Nere gazte-garaian Azpeitian etzegoen giroa aurkitu nuen nik Txilarramendin, eta ura izan zen neretzat benetako bertso-eskola. Emen, kalean, bertso eta euskera-giro kaskarra zegoen ni asi nintzenean. Baserritar, arlote, alper, tripontzi eta zurrute-roa zen bertsolaria, askoren iritziz; eta etzuen iñungo meriturik. Ba etzan kasualidade utsa izango inoiz gure erritar Karmelo Etxegaraik bertsolariei buruz idatzi zuena ere, garai artako giroaren lekukotasuna baizik".

'Joxe Lizaso, nere aldiko kronika' liburutik hartua. Joxe Mari Iriondo. Sendoa argitaletxea. 2001. urtea.



Joxe Lizaso
Nere aldiko kronika

Joxe Lizaso, Premi Etxeberrin.

unibertsidadie

UEU-N UDAKO IKASTAROETAKO IZEN-EMATEA

Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) *Haize berriak!* XXXI. Udako Ikastaroetan izena emateko epea irekita dago ekainaren 13a arte. Hortik aurrera, ekainaren 29a arte, garestiagoa izango da matrikula. 28 ikastaro antolatu dira: hamabi Miarritzen, hamabost Iruñean eta bat Ondarroan. UEUK ikastaroen berri jakiteko eta matrikula egiteko web orria prestatu du. Hona hemen helbidea: www.ueu.org/ueu/index

osasune Julian Bereziartua (medikua)



BITAMINAK

● **K.**
Odol jarioa murrizten laguntzen du

K bitaminak bizitzeko beharrezkoak ditugu. Baina oso neurri txikitik. Hogeitabat ezagutzen ditugu. Ez dakigu gehiago ote dauden. Ez gaituzte elikatzen, ez gizendu eta ez argaltzen. Baina argi dagoena da hartzen baditugu gaixotu egiten garela.

Bakoitzaren lana desberdina da:

- A bitamina: begibista ondo mantentzea, azala bigun edukitzea... Gehien daukaten jakiak gibela, arrautzak, esnea eta gurina dira.
- B bitamina: ez da bakarra, talde bat baizik (B1, B2, B5, B6, B12). Gure nerbioak egoera onean edukitzea lortzen dute. Haragiak, arrainak eta barazkiak dituzte.

● C bitamina: kutsadurak galarazten laguntzen du. Non bilatu: kiwi, laranja, patata...; hau da, fruitu freskoetan.

● D bitamina: hezurak gogor eta indartsu edukitzeko balio du. Zein janaritan dago: arrautzak, zerealak eta hegaluzea.

● K bitamina: odol jarioa murrizten laguntzen du zauri baten ondoren. Gehienbat barazkietan aurkituko dugun.

Gaur egun denetik janez gero, ez dago bitamina faltarik izaterik. Hala ere, zoritxarrez oraindik ikusten ditugu kasuak.




HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

- Odontologi orokorra
- Odontologi estetikoak
- Aho zirujia
- Ezarpen osoak
- Protesi mugikorraren aldatzea protesi finkora
- Pieza gabekoa pieza finkora aldatzea

Enparan 8 - 1 Tel.: 81 67 36



- AHOLKULARITZA FISKALA,
- LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURUOK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62



JOSE ARTETXE, 10
Tel. 943 81 52 44

telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI

PUBLIKOAK	
Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria herri aldirakaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Egunero	943-33 25 50
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 30 40
Habea	15 12 15
EA	81 00 11

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEAK

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesusen Alabak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Milagrosa	81 63 80
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA

Baite Euskara Elkarte	15 03 58
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyek
gauz

EKAINAK 1-12-19

Garcia. 81 12 74

EKAINAK 2-3-25-26-27

Jaen (Azkoitia). 85 06 60

EKAINAK 4-5-6

Ruiz (Azkoitia). 85 19 66

EKAINAK 7-8-23-24

Azpiazu (Azkoitia). 85 29 89

EKAINAK 9-14-15-17

Aranburu. 81 13 50

EKAINAK 10-20

Beristain. 81 19 49

EKAINAK 11-16-21-22-30

Etxebeste. 81 59 74

gune
publikuek
irikite

UDALETXEA

Astegunak: 9:00-13:30
Larunbatak: 9:00-13:00

IXPIXIOA

Egun osoz irekita

IGERILEKUA

Astelehenak: 14:00-21:00

Beste astegunak: 7:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Kanpoko igerilekua: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

Astelehenak: 9:00-13:00, 15:00-21:00

Beste astegunak: 15:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiyek

JOATEKO

AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA

Astegunak: 6:50 (1), 7:40 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15

Ilgandek eta jaiegunak: 15:10, 19:15

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:15

Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30

Ilgandek eta jaiegunak: 9:30, 19:30

Enpresa: Pesa

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:38, 7:20, 13:20

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZPEITIA-AZKOITIA

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10

Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10

Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA

Astegunak: 6:55, 13:55

Asteburuak eta jaiegunak: 6:55, 11:10

Enpresa: EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK

Aldalur	85 27 18	Pesa	902 10 12 10
EuskoTren	15 06 77	Piper Unibertsitate Elkarte	85 25 87
La Guipuzcoana	85 11 59	Taxiak	81 13 07

irabazliek: Fermin Etxeberria, J. M. Ibarzabal eta Antonio Valencia



Udaberriko irudi onenak argazkitan

● **XXVI. UDABERRIKO ARGAZKI RALLYA.** Azpeitiko Argazki Elkarteak apirilaren 6an egin zuen Azpeitia-Getaria gai bezala hartuta. 54 argazkilarik hartu zuten parte. Bildumarik onenaren saria Fermin Etxeberria zarauztarrak irabazi

zuen. Bigarren saria Juan Mari Ibarzabal azpeitiarrak eskuratu zuen, eta hirugarrena, berriz, Antonio Valencia donostiarrak. Argazkirik onenaren saria ere Ibarzabalek irabazi zuen. Iñigo Korta izan zen herriko lehen sailkatua.



4



1. HARKAITZAK.

Fermin Etxeberriaren bildumakoa, *Harkaitza* gairako Zumaiko hondartzakoak hautatu zituen.

2. ELIZA.

Getariko elizako irudia. Hau ere Etxeberriaren bildumakoa.

3. SOKASALTOAN.

Ume hauen irudia hautatu zuen Etxeberriak *mugimendua* atalean lehiatzeko.

4. GITARRAJOLEA.

Jendea sailean lehiatzeko, gizonetako hau gitarra jotzen ari zen bitartean ateratako argazkia hautatu zuen zarauztarrak.

5. ZER DA?

Etxeberriak irudi bitxi hau aukeratu zuen *kolorea* atalerako.

6. GETARIA.

Antonio Valenciak ateratako Getariko elizako irudia.



5



6



7. AMONA.

Juan Mari Ibarzabalek argazki hau atera zuen, amona umeekin berriketan ari zela. Argazkia, *jendea* sailerako atera zuen Ibarzabalek.

8. ITSASONTZIA.

Getariko portuan arrantzaileen zain egon ohi diren itsasontziak ere islatu zituzten argazki rallyan. Hau ere Antonio Valenciak aterako argazkia da.



TELEFONO DEI BAT

Kostaldeko herri bat, goizeko bederatzia aldera. Igandea da. Logura, oraindik. Izara arteko mugimendu laburra, nagia. Ahozabalka luzea. Jaiki beharrik ez, ño. Poza.

Ezkerreko begia milimetro bat zabaldu. Argi izpi bat ikusteko adina bakarrik. Eguna eguzkitsu jaiodela dirudi. Itsas brisa fresko apur batekin, ziurrenik. Ederra. Burua izarekin estali berriro. Gorputzeko epeltasunaz gozatuz.

Telefono dei bat. Sustoa. Kaguenlaletxe. Bihotza azkartu egiten da. Jaikiko da beste norbait. Baina ez, ez da inor jaikitzen. Eta telefonoak hor jarraitzen du, zirikatzen. Xaxatzen. Arnasa ere bizkortu egiten da. Kaguenlaletxe. Mamu gisa altxatu. Begi bat ireki. Telefonoa hartu. Hobe du zer edo zer larria izatea. Istripuren bat gutxienez.

—Bai?

—Aizu, barkatu. Zer eguraldi dago hor? Esatea bai? Joan ez joan gaude eta...

Kaguenlaletxe.

—Zer, azpeitiarra?

—Joño, ba bai. Nola asmatu duzu?

Eguzkia irteten hasi orduko telefonoa hartzeko joera dugu, nonbait, eta itsasoa daukan edozein herritara deitzeko eta eguraldiaz galdetzeko. Kostaldeko ezagun batek aipatu zuen kontua, eta segituan gehitu ziren gainontzeko itsaskide guztiak. Gehiegikeria iruditu zitzaigun azpeitiarroi, zer esanik ez, eta hala adierazi genien. Noiz edo noiz gertatuko dela, baina ez zela hainbesterako izango.

la jan egin gintuzten.

Kostaldeko lagun bakoitzak jasan omen zuen, itxura zenez, dei sorta bat. Aurpegiratu ere egin ziguten: seguru geuk ere egin genuela inoiz holako deiren bat. Isilik geratu nintzen, ezin bainuen salaketa ukatu. Gainontzeko azpeitiarrek ere antzera: irribarre egin nahian, baina mutu. Guztiok genekien ez zela gezurra.

—Azpeitiarrak gure hondartzak eta kaleak konkistatzen dituzue udara batean eta hurrengoan ere, eta nahikoa izango ez bazenute bezala, gainera, geure etxe barruko bakea ere hondatu nahi duzue. Inperialista batzuk zarete!

Beste guztiak barrez, azpeitiarrok kexu; baina uste gehiegirik gabe. Horrela hartzen al gintuzten?

—Oso majoak zarete, bale. Eta parrandarako lagun apartak... Baina mundua zeuena dela pentsatzen duzue. Egunen batean debekatu egingo dizuegu kostaldera etortzea.

Jesus. Azpeitiarrok nahiko harrিতa geratu ginen.

MORROIA.
(‘Matrix’ filma ikusi ondoren)
Morroia dela ez dakien morroia morroia al da?

Txantxetan ari zirela ematen zuen, edo hori sinetsi nahi genuen. Besteak barrez, baina guztiak zetozen bat.

Agindu genuen ez geniela gehiago telefonoz deituko. Edo ahaleginduko ginela, behintzat. Eta aipatu behinik behin egingo genuela herrian. Eta hona lerro hauek, adibide gisa edo.

—Egia esan —azaldu zuen haietako batek—, agian nahiago deitzen jarraitzen baduzue. Izan ere, horrela gutxiago etorriko zineten.

Ez genion ulertu lehenengoan. Zertan geratzen ginen? Deitu edo ez?

—Niri behintzat deitzen didazuenean, erantzun automatikoa daukat: “Buf, ikaragarrizko lainoa sartzen ari da. Egundoko ekaitza dator. Zu izanda ez nintzateke hurbildu ere egingo”. Azpeitiar bat gutxiago herrian.

Ez omen dugu besterik merezi.

Badakizue, hortaz. Ez sinetsi kostaldekoek eguraldiaz esaten dizuetena. Eta, ahal izanez gero, deitu gutxiagotan. Eskertuko omen dute. Horrela, beharbada, ez digute egunen batean hara joatea debekatuko.



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

EKAINAK 6 (ostirala)

• BERTSOLARITZA.

Uztarria Kultur Koordinadora-ren II. Kulturaldia. Bertso-afaria, Errezilgo Borondegijate-txean. Erriarraitz Bertso Eskolako irakasleak eta ikasleak ariko dira bertsoan.

EKAINAK 7 (larunbata)

• 'EGUNKARIA'-REN EGUNA.

Goizez, haurren marrazkien erakusketa eta marrazketa. 12:00etan bizikleta martxa herrian. Herri bazkaria, azoka plazan. Txartelak herriko ohiko tabernatan aurrez salgai izango dira. Eta triki-poteoa.

• KONTZERTUA.

Uztarria Kultur Koordinadora-ren II. Kulturaldia. *Pain Ful* taldearen kontzertua. 18:00etan. Korrale tabernan.

EKAINAK 8 (igandea)

• AURKEZPENA.

Zezen-plazaren mendeurreneko liburu aurkezpena. 12:00etan. Udaletxean. Eskultura eskaintza, 13:30ean.

• ASTEBURU MUSIKALAK.

Bizkargi Txistulari Taldea. 13:00etan. Udaletxeko arku-petan.

'Gure inguruari begirada bat' argazki lehiaketa abian da

• **EKITALDIA:** 'Gure inguruari begirada bat' II. argazki lehiaketa • **EPEA:** Urriak 3 (ostirala) • **ANTOLATZAILEA:** Azkoitiko eta Azpeitiko udalak garatzen ari diren Tokiko Agenda 21

Nerea Uranga / Aurten bigarrenagoz, Gure inguruari begirada bat argazki lehiaketa antolatu du Azpeitia-Azkoitia Tokiko Agenda 21ek, Azpeitiko Argazki Elkartearen, Lagun Onak Mendi Bazkunaren eta Azkoitiko Anaitasuna Mendi Bazkunaren laguntzarekin.

Lehiaketaren parte har dezaketen lanen gaiari dagokionez, Agenda 21aren kontzeptuarekin eta filosofiarekin lotura duen guztia batzen da; hala nola, ingurumen naturala, hiri-ingurunea, garraioa, ura, hondakinak, industria... Antolatzailleek gaiarekin lotutako kontuen alde ona eta txarra jaso nahi dituzte lanetan, eta argazkietan urtaro guztiak islatzea ere eskatzen zaie parte hartzaileei. Eremu geografikoa, berriz, Azkoitiko eta Azpeitiko udalerrietara mugatuta. Bestetik, lanak aurkezteko orduan argaz-

kiak non aterata dauden jartzea derrigorrezko jo da. laz bezala, aurten ere argazki lehiaketaren helburua saritutako argazki lanekin egutegi bat ateratzea izango da; bigarren lehiaketa honetako argazki sarituekin 2004. urteko egutegia osatuko da.

SARIAK. *Gure inguruari begirada bat* II. argazki lehiaketako deialdiko sariak ere zehaztu dira: 125 euroko hamar sari eta 200 euroko bi sari berezi (bata modalitate positiboari dagokiona eta bestea salaketa-argazkiari) banatuko dira.

Lanak aurkezteko nahiko denbora utzi da aurten ere lehiaketaren deialdian, epea urriaren 3an amaituko baita, eta epaimahaiaren erabakia urriaren 11n jakingo da.

EKAINAK 13 (ostirala)

• ERAKUSKETA.

Diart Estudioko ikasleen lanen erakusketaren azken eguna. Orduategia: asteleheneretik ostiralera, 18:00etatik 20:00ak bitartean. Antxieta Etxean.

EKAINAK 15 (igandea)

• MENDIA.

XVI. Helduen Kostaldeko ibilaldi neurtua. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta.

• LURRINEZKO TRENA.

Lurrinezko trenean ibilaldia Lasara. 12:30ean. Trenaren museoa.

• ASTEBURU MUSIKALAK.

Asteburu Musikalak programaren barruan. Bilboko Jesus Aranbarri Musika Eskolaren eta Juan de Antxieta Musika Eskolaren kontzertua. 13:00etan. Plazan.

EKAINAK 19 (osteguna)

• ASTEBURU MUSIKALAK.

Juan de Antxieta Musika Es-

kolaren 2002-2003 ikasturte amaierako jaialdia izango da. 19:30ean. Soreasu antzokian.

EKAINAK 20 (ostirala)

• PILOTA.

Urrestillako San Juan jaiak. Pilota partidak. Azpeitiko Udaleko Kirola Batzordeak antolatuta. 22:30ean. Urrestillako pilotalekuan.

• TRIKITILARIAK.

Urrestillako San Juan jaiak. Trikitilariak kaleetan



ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24



Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ono, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



uztarria.com

Kamixetak
10 €

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35



AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59



AGENDA 21 AZKOITIA-AZPEITIA

barrena ibiliko dira. 23:30ean. Urrestillan.

EKAINAK 21 (larunbata)

• ARTISAU AZOKA.

Uztarria Kultur Koordinadora-ren II. Kulturaldia. Artisautza azoka egun osoan. Bost erakusketa tailer eta hamabost postu inguru jarriko dira. Plazan.

• KROSA.

Urrestillako San Juan jaien barruan krosa. 16:00etan. Urrestillan.

EKAINAK 22 (igandea)

• MENDIA.

Ulia-Pasaia goiz ibilaldia. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. 08:00etan. Plazan.

• URRESTILLAN JAIK.

Urrestillako San Juan jaiak. Zaharren eguna. 12:00etan meza nagusia, Urrestilgo parrokian. Azpeitiko Udal Musika Bandaren kontzertua, 13:00etan. Erraldoi eta buruhandiak, 13:30ean. Jubilatuen bazkaria, 14:00etan. Eta

III. Ardi Txakur lehiaketa, 16:00etan.

EKAINAK 23 (astelehena)

• URRESTILLAN JAIK.

Urrestillako San Juan jaiak. Poteo herrikoia, 20:00etan. 21:00etan txupinazoa eta segidan herri afaria. 23:30ean, San Juan arbola sartzea eta San Juan sua piztuko da. Ondoren dantzaldia Akelarre taldearekin.

• ERAKUSKETA.

Urolako Arte eta Diseinu Ikastegiko ikasleen lanen erakusketa uztailaren 11 arte irekita izango da. Ordutegia: astelehetik ostiralera, 18:00etatik 20:00ak arte. Antxieta Etxean.

EKAINAK 24 (asteartea)

• URRESTILLAN JAIK.

Urrestillako San Juan jaiak. 11:30ean dultzaineroak. 12:00etan meza. 13:00etan erraldoi eta buruhandiak eta dultzinerokin txikiteoa. 16:00etan zezen txiki eta poniak. 19:00etan eskulan erakusketa eta afari merienda. 19:30ean, berriz, Pasai txaranga.

EKAINAK 25 (asteazkena)

• ODOL EMATEA.

Odol emate eguna. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak deituta. 18:30etik 21:00etara. Anbulategian.

• URRESTILLAN JAIK.

Urrestillan San Juan jaiak. 12:30ean sagardo dastaketa. 15:30ean mus txapelketa. 16:00etan ume jolasak. 17:00etan umeentzako merienda eta 20:00etan Sugarri txaranga.

EKAINAK 26 (osteguna)

• URRESTILLAN JAIK.

Urrestillako San Juan jaiak. 22:00etan trikitilariak eta 23:00etan arbolaren entierroa.

EKAINAK 27 (ostirala)

• ASTEBURU MUSIKALAK.

Kitarra eta eskusoinu kontzertua. 20:30ean. Udaletxeko arkupetan.

EKAINAK 28 (larunbata)

• MENDIA.

Aste bukaerarako mendi irteera Pirinioetara. Lagun Onak M.B.k antolatuta. Aurrez izena eman behar da.

• ASTEBURU MUSIKALAK.

Garikoitz Mendizabal eta Mari Carmen Azpeitia musika bikotearen kontzertua. 19:30ean. Urrestillako elizan.

Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com

TABERNA



Telfnoa.: 943 151086
Enparantza Nagusia

Lore Sorlak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



- Lorategien proiektuak
- Zuhaisken kimaketa
- Lorategi eta zelaien mantenua
- Belar landaketa eta tepe, egur, harri edo txilar jartzea

943-025319 (Azkoitia)
679106753 (mugikorra)

EPELDE INMOBILIARIA

Goiko Kale, 1 - Behea
Tfona/Faxa: 943 15 03 31
20730 AZPEITIA

AEPI
A.E.P.I., 20/46

Taberna bat
alokatzen da
Azpeitian

943 - 15 00 57



ION ARANBURU

“Erlien munduek txikitetiken erakarri izen natxik”

Ezizenez ezagunago da; alegiye, *Muxu* bezela, Jose Inazio Aiestaran bezela baino. Berari, betitik gustayu izen zazko erliek, eta baserriyen 30 erle kaja inguru dauzke; 75 kaja ere edukite dago. Kaja bakoitzien 30.000 erle bizi dire gutxi gora-behera.

● **Nolatan hasi hitzean erliekin?**

Txiki-txikitetiken erakarri izen natxibek. Umetan erle bat harrapatu eta pote baten sartu nian zer egiten deben jakiteko. Denboriekin ikisten jun nauk. Azpeiti-Axkoiti inguruen erle gehiyen nik zauzkeat.

● **Erleaz asko jakingo dek.**

Urtiekin ikisten jun nauk. Gipuzkuko erlezainen elkartien lehenengotako bazkidie nauk, eta handiken informaziyo asko eskuratu izen diat.

● **Lehen baserri askotan ikusten hituan erliek.**

Bai. Lehen azukre gutxiyo zagoan, eta eztiye asko ibiltzen huan azukrien partez. Pixkenaka jendie erliek kentzen jun dek, heldu egiten debelako. Gainera, gaur egun lehengo florarik ez zioke eta pixkenaka desagertzen jun dituk.

● **Lan haundiye ematen al debe?**

Ez. Udera aldien hamabostien behin kajei begiratu nahikue izeten dek. Kontuten eduki beher izeten dek kaja bakoitzien erliek ibiltzen deben sartu-ertena. Normala baldin badago, ondo dagon seinale. Bestela, erregiñe aldatu beher ize-

ten dek edo ume sortie aldatu eta antzekuek egiten dituk. Hemen dagon arazorik haundiye klima klimie dek, klime sekue beher diabe eta.

● **Hik nolako erliek dauzkek?**

Hemengue, erle beltza: *apis mellifika*. Alde hontan gehiyen hori zioke. Azken aldien, ordie, *degeneratzen* jun dek.

● **Berayek egiten deben eztiyekin zer egiten dek?**

Gorostitxoko Eztiolan bazkidie nauk, Usurbilen. Han enbasatzen diagu eztiye eta gero norberak etxea ekartzen dik. Normalien, baserriyetan eta produzitzen dan eztiye dietetikako dendetara ematen diagu saltzeko.

● **Zenbat ezti fabrikatzen dek urtien?**

30 kaxa zauzkeat eta 200 kilo inguru produzitzie zioke. Kaxa batetik gehiyen 75 kilo produzitu diat.

● **Zein da ezti ona emateko sekretue?**

Produkto naturalak ibiltzen ditxiat. Garbiketie ere oso garrantzitsue dek.

● **Erle artien kontuz ibili beherko dek.**

Kontuz ibili beher izeten dek; animalia danak zoabe errespetue. Ni, normailen, trajiekin eta hauspuekin ibiltzen nauk, baiño erliek lasai bazaudek traje gabe, itomena sortzen dik eta. Erliek heldu eta eztena azkar ateraz gero, ez dek ezer pasatzen.

Ion Aranburu

TXIKITEKO AMETSA. “Erlienzako bakarrik lan egitie gustatuko zitean, baiño gaur egun dauden enpresa multinazionalakin hori eziñezkue dek”

OTEIZA

LIZEO POLITEKNIKOA

elkarrekin
etorkizunera



Mekanizazio bidezko
produkzioa

Erregulazio eta
kontrol automatikoak



Proiektu mekanikoen garapena

Aplikazio informatikoak

Industri ekipoaren
mantentze-lanak

Goi mailako zikloak



Batxilergoak

Zientzia

Gizartea

Teknologia

Erdi mailako zikloak

Mekanizazioa

Ekipo eta instalazio
elektronikoak



ANTONIANO IKASTETXE
POLITEKNIKOA



ORIOKO HERRI IKASTOLA


SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

Gure zentroa ezagutu edo informazioa jaso nahi bazenu,
deitu eta gustu handiz erantzungo dizugu

TEL.: 943 83 02 86 / 943 11 10 00

www.oteizalp.org





Santi Lazkano Kirolak

A woman with long, colorful hair is wearing a vibrant, patterned dress. She is holding a large white sign with a green floral design. The background is a bright, textured yellow.

Babesu
gazte media

DESBERDINDU ZAITEZ!
BAITA UDABERRIAN ETA UDAN ERE

Xanjuandei auzuen gatxauden! Urbitarte, 9 ♦ Tel. 943 151369